

# JAINKOAREN HITZA NORK BERE EGIN ETA ALDARRIKATU

IRUÑA ETA TUTERA, BILBAO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO GOTZAINEN  
IDAZKI PASTORALA

2009ko GARIZUMA - PAZKOA

## AURKIBIDEA

### SARRERA

- Gure bihozberitzearen berariazko edukia (1. zk.)
- Jarrera irekiak edota itxiak  
Jainkoaren Hitzaren aurrean (2. zk.)
- Idazki Pastoral honen asmoa (3. zk.)
- Idazkia urratsez urrats (4. zk.)

### I. JAINKOAK HARREMANA IZAN NAHI DU GUREKIN JESU KRISTOREN BITARTEZ

- Ikuspuntuaren aldaketa argitsua eta suspergarria (5. zk.)
- Jesu Kristo presente dago Jainkoaren Hitzean (6. zk.)
  - Jainkoaren Hitza Hirutasunaren baitan
  - Jainkoaren Hitza profetengan (7. zk.)
  - Jainkoaren Hitza gizon egin zen (8. zk.)
  - Jainkoaren Hitza Apostoluen predikuan (9. zk.)
  - Jainkoaren Hitza Idazteunean (10. zk.)
  - Jainkoaren Hitza Elizaren predikuan (11. zk.)

### II. JAINKOAREN HITZA BIZIA DA: ERAGINKORRA ETA GAURKOA

- Hitz eraginkorra (13-14 zk.)
- Gaurko Hitza (15. zk.)
- Jainkoaren Hitza eta gizakiaren hitza (16. zk.)

### III. HITZAREN, ESPIRITUAREN, EUKARISTIAREN ETA ELIZAREN ARTEKO AHAIDETASUN ESTUA

- Hitza eta Espiritua (17-18 zk.)
- Hitza eta Eukaristia (19-20 zk.)
- Hitza eta Eliza (21. zk.)
  - Eliza Jainkoaren Hitzetik jaiotzen da eta bizitzen
  - Jainkoaren Hitzak eusten dio Elizari historian zehar
  - Jainkoaren Hitza, Espiritu Santuaren  
ahalmenagatik, Elizaren bizitzan sartzen da  
eta sustatu egiten du
  - Hitza Elizan gehiago sustraitzeko (22. zk.)

### IV. JAINKOAREN HITZAREN IKASLE ETA TESTIGU

- Hitzaren ikasle (23-24 zk.)
- Hitzaren testigu (25. zk.)
- Ikasle eta testigu Mariaren antzera (26. zk.)

### V. JARRERA EGOKIAK ETA DESEGOKIAK JAINKOAREN HITZAREN AURREAN

- Jarrera egokiak (27. zk.)
  - Aitorpena eta entzutea
  - Esker ona (28. zk.)
  - Baldintzarik gabeko onarpena (29. zk.)

- 1.4. *Kontzientzia arretatsua* (30. zk.)
- 1.5. *Konfiantza* (31. zk.)
- 1.6. *Mirespena eta harridura* (32. zk.)
- 1.7. *Konpromisoa* (33. zk.)
2. Jarrera desegokiak (34. zk.)
  - 2.1. *Irakurketa fundamentalista*
  - 2.2. *Historizismo kritikoa* (35. zk.)
  - 2.3. *Irakurketa legiitmatzaille eta murriztailea* (36. zk.)
  - 2.4. *Irakurketa ideologikoa* (37. zk.)
  - 2.5. *Irakurketa moralista* (38. zk.)
  - 2.6. *Irakurketa espiritualista* (39. zk.)
  - 2.7. *Ezjakintasuna eta gogorik eza* (40. zk.)
  - 2.8. *Hitzaren eta bizitzaren arteko koherentziarik eza* (41. zk.)

**VI. JAINKOAREN HITZEAN SAKONTZEKO:  
«LECTIO DIVINA»**

1. «Lectio divina» deritzanaren sorrera eta garapena (42-44 zk.)
2. «Lectio divina» deritzanaren giltzak (45. zk.)
  - 2.1. *Testuak begirunez irakurtzea*
  - 2.2. *Testura jo bizitzatik eta bizitzarako* (46. zk.)
  - 2.3. *Otoitz egiten duen eta arduraduna buru duen elkartean irakurri Jainkoaren Hitzza* (47. zk.)
  - 2.4. *Jaunaren Pazkoaren argitan* (48. zk.)
3. «Lectio divina» deritzanaren urratsak (49. zk.)
  - 3.1. *Behin eta berriro irakurtzea*
  - 3.2. *Meditazioa*
  - 3.3. *Otoitza*
  - 3.4. *Kontenplazioa*
  - 3.5. *Konpromisoa*
  - 3.6. *Elkarrizketa*
4. «Lectio divina» deritzanaren eraginak (50. zk.)

**VII. MEZUA KRISTAU ELKARTEARI ETA  
ELKARTEKIDE GUZTIEI**

1. Mezua guztiontzat (51. zk.)
2. Laikoei (52. zk.)
  - 2.1. *Katekistei eta Erljio-irakasleei* (53. zk.)
  - 2.2. *Liturgian Hitzaren irakurle direnei* (54. zk.)
  - 2.3. *Apaizik gabeko elizkizunak zuzentzen dituzuenoi* (55. zk.)
  - 2.4. *Fede-jarreraz Hitzaren irakurketa egiteko talde-buruei* (56. zk.)
  - 2.5. *Gurasoei* (57. zk.)
  - 2.6. *Gizarte-komunikabideetako fededunei* (58. zk.)
3. Exegesiaren eta Teologiaren irakasleei (59. zk.)
4. Erljiosoei (60. zk.)
5. Apaizei eta diakonoei (61. zk.)
6. Geuri, gotzainoi (62. zk.)
- BUKAERA (63. zk.)

## SARRERA

Senide maiteok:

Gaur, Hausterre-egunean, Jaunaren Nekaldi, Heriotza eta Piztuera oinarri eta helburu duen ibilbide espiritualari ekingo dio Elizak. Aurreko berrogei egunetan (hots, Garizuman), kristau-elkarteak, Espirituak sustaturik, bihozberritze-bidea egingo du, nagusiki Jainkoaren Hitza entzunez, Adiskidetzaren sakramentua ospatuz eta Eukaristia gertaberrituz. Espiritu beraren eraginez, kristau-elkarteak ere parte hartzen du bihozberritze-bide horretan otoitzaren, neurritasunaren eta errukiaren bidez. Horrela erantzuten dio Jesusen dei estuari: «*Bete da garaia, eta gainean duzue Jainkoaren erregetza. Bihozberri zaitezte eta sinetsi Berri Ona*» (Mk 1, 15).

Pazkoaren gailurrera heltzean, beste berrogeita hamar egunez arituko da Elizaren liturgia luze eta zabal Jaunaren piztueraren aberastasunak guri ezagutzera ematen eta egiazko pazko-bizitza era beteagoan bizi dezagun laguntzen.

Asmo eder hori egintzara eramaten lagundu nahi du gure Idazki Pastoralak. Abiapuntu Hausterre-eguna hartu eta Pazkoaldiaren azken kapitulua den Pentekoste artean dagoen aldi garrantzitsu honetako ibilbidean egin nahi digu bereziki lagun.

### 1. Gure bihozberritzearen berariazko edukia

1. Garizuma bakoitzak eta Pazko bakoitzak kutsu berezia ematen diote gure bihozberritzeari, gure bizitzan aparteko eragina duten eliz eta gizarte-inguruabarren arabera. Joan den urrian ospatutako azken Sinodoak

indartsu gogoratu digu behin eta berriz, Jainkoaren Hitzak eliz elkartearen bizitzaren eta jardueraren ardatz izan behar duela, eta garrantzi erabakigarria eman behar zaiola kristau guztien espiritualtasunean. Bistakoa da adierazpen hauen eta gure tenperatura espiritualaren arteko aldea. Kontraste honek bihozberritze-bide zorrotza erakusten digu.

«Jainkoaren Hitzaren testigu eta Elizako maisu»<sup>1</sup> argitsu eta sutsu izan zen San Pauloren Urtea ospatzen ari gara munduko elkartate katoliko guztiarekin batera. Damaskora bidean Jesusen Hitzak lurrera jaurti, ikasle bihurtu eta apostolu nekaezin egin zuen hura (ik. Eg 22, 7-8) eredu guztiz baliotsua da, Hitza debozioz geure egin eta konfiantza osoz eskain dezagun. Ebanjelioa jarrera erlijiosoan entzutea eta itxaropenez aldarrikatzea gomendatu zigun Kontzilioak; baina, zoritxarrez, zailtasun handiak eta gogo eskasa aurkitzen dituzte fededunek horretarako. Pauloren Urteak adore ere eman nahi digu jarrera eskas horietatik bihozberritzeko.

Baina garrantzitsuak diren bi eliz gertaera huez gain, badugu funtsezkoagoa den beste arrazoi bat ere. Gure fedea egiaz dioenez, Jainkoaren Hitza gure bihozberritze pertsonalaren eta Elizaren berrikuntza ebanjelikoaren aparteko iturri da beti, eta fedetik eta kristau-elkartetik aldentutako pertsona eta talde askorekiko harremanerako bide. «Jainkoaren Hitzaren indar sendatzailea dei bizia da etengabeko bihozberritze pertsonalera-ko».<sup>2</sup> Guztiz egokia da, beraz, fedearen ar-

(1) Gotzainen 2008ko Sinodoa, *Instrumentum laboris*, «Jainkoaren Hitza Elizaren bizitzan» gaiari buruz, 2. zk.

(2) Gotzainen 2008ko Sinodoa, 8. proposamena.

gira egingo dugun gogoetaren ardatz bihurtzea Hitzazko aldi honen hasieran.

Gizartearen analista askoren iritziz, ane-  
mia espiritual gogorra nabari da gure garaio-  
tan eta, aldi berean, «halako premia espiri-  
tual lausotua... otoitza berriro ere ezinbes-  
tekoa dela adierazten duena».<sup>3</sup> Egoera hone-  
tan aurkitzen den gizarteari begiratzen ba-  
diogu, gure herrikideei Hitzaren elikagai in-  
dar-emailea eta Ebanjelioaren mezua argi eta  
garbi eskaintzeko premia nabaritu beharko  
litzateke gure kristau-elkarteetan. Eginkizun  
hori gauzatuko bada, ezinbestekoa da Jain-  
koaren Hitzaz gogo biziz onartzea eta ausar-  
diaz aldarrikatzea; baina ezaugarri horiek  
ezin dira gaurko gure kristau-elkarteen onda-  
retzat jo.

## 2. Jarreraz irekiak edota itxiak Jainkoaren Hitzaren aurrean

2. Baina, benetan interesgarria ote da Hitz  
hau gaurko munduarentzat? Adierazle  
askoren arabera, ezezkoa da bat-bateko  
erantzuna. Fede itzaliaren edo akabatuaren  
gure ingurunezko esparru zabalean, hondakin  
anakronikotzat jotzen da Jainkoaren Hitzaz,  
«etsi eta hil nahi ez duen azken ideolo-  
giatzat».<sup>4</sup> Gaurko kultura honetan, helburu  
sinestezinak lorturik liluratua, bere salbame-  
naren protagonista bakartzat bere burua har-  
tzeko joera du gizakiak. Jainkoaren aurpe-  
giaren agerpen eta gizakiaren erabateko sal-  
bamen bezala eskaintzen den Hitz transzen-  
denteak baztertua izateko aukera guztiak ditu  
aldeaz aurretik. Gure zibilizazio guztiz kritiko  
honetan, duela milaka urte sortutako Hitz  
hau –gure garaiko sentsibilitate, ardura eta  
galderetatik oso urrun dagoen inguru batean  
sortua– mitoen alorreko zerbait bezala ikus-  
ten da.

Adituen arabera, panorama honekin alde-  
ratuz, Jainkoaren Hitzaz historian inoiz izan  
ez duen bezalako egunsentia bizi du gaur  
munduan. Idatziaz daukagun Jainkoaren Hi-

tzera hurbiltzea ez da kultura-esparru jakin  
batera murrizten den gertakaria. Ia aldi be-  
rean eta era autonomoan, hainbat kontinente-  
tan gertatzen joan den zerbait da. Idazteuna-  
ren irakurketa eta hausnarketa kristau-berri-  
kuntzaren eta Elizaren zabalkundearen iturri  
bihurtzen ari da. Amosen (8, 11) antzinako  
profezia betetzen da: «*Gosea bidaliko dut, ez  
ogi-gosea, eta ez ur-egarria, Jaunaren hitza  
entzuteko gose-egarria baizik*».

Oraindik urrun geratzen zaizkigu Vatika-  
noko II. Kontzilioak proposatutako helbu-  
ruak. Idazteuna ez da oraindik, ez beharko  
lukeen neurrian behintzat, ez teologiaren  
bihotza ezta kristau-bizitza osoari arnasa  
ematen diona ere.<sup>5</sup> Baina egoera harrigarria  
eta itxaropentsua erakusten digute azterlan  
biblikoetan eta teologikoetan eta katekesi-  
-planteamenduetan egindako aurrerapenek,  
Hitzaren aldarrikapenak liturgian hartu duen  
garrantziak, Idazteunaren inguruko Heziketa  
Eskolek, Bibliaren itzulpen zainduak, Aste  
eta Jardunaldi biblikoek, argitaratutako la-  
gungarri ugariak eta, batez ere, fede-ikuspe-  
gitik eta otoitz-giroan egindako Bibliaren  
irakurketak Elizan izan duen gorakada eta  
hedapen ia unibertsalak. Inolako giza hitzek  
ez duen freskotasun eta indarrez jantzia  
agertzen zaigu Jainkoaren Hitzaz. Zorionez,  
kristau-herriari bizirik eta zuzenean eman  
zaio gaur egun Jainkoaren Hitz hau, lehengo  
aldietan baino indartsuago. Jende apal eta  
pobreak pozez eta itxaropenez jasotzen du  
eta, gainera, aparteko sakontasunez ulertzen.  
«Pozgarria da ikustea, jende hain apal eta  
pobrea gai dela Biblia bere eskuetan hartu  
eta, ikuspuntu espiritual eta existentzialetik,  
argi berri batez hura interpretatu eta gaur-  
kotzeko; bere buruarekin erabat seguru da-  
goen zientziatik datorkiona baino sarkorra-  
goa den argiaz, hain zuzen».<sup>6</sup> Hemen bete-  
tzen dira, era erabakigarrian, Jesusen hitzok:  
«*Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna,*  
gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu diz-

(3) JOAN PAULO II.a, *Novo millennio ineunte*, 33. zk.

(4) E. SALMANN, *La palabra partida*, PPC, Madril  
2006, 9-12 orr.

(5) Ik. JOAN PAULO II.a, *Tertio millennio adveniente*, 36.  
zk.

(6) ERROMAKO BATZORDE BIBLIKOA, *Bibliaren inter-  
pretazioa Elizan*, IV, C. 3.

*kiezulako eta jende xumeari agertu» (Mt 11, 25).*

Bihotza Bibliara zabaltze hau ez da eliz gertakari hutsa. Duela gutxi arte kristau-fedearikiko jarrera itxia erakutsi izan duten India edota Ekialde Urruna bezalako kultura-kontinente zabalek Idazteunean jasotako Hitzarekiko erakarpina sentitzen dute orain. Kontsolagarria da, Mendebaldean fedearen eguzkia ezkututzen ari dela dirudien une honetan, Ekialdean berriz sortzen ari dela ikus-tea.

Baina zerbait gertatzen ari da Mendebaldean ere. Hain zuzen ere, espiritualtasunaren esparrua basamortu bihurtua duten herrialde batzuetan talde txikiak sortzen ari direla nabari da; hauek beren bizitzan aurkitzen edo bilatzen dituzten zentzu partzialek ez dituzte betetzen, eta zentzu eragileagoa eta sakonagoa irrikatzen dute, eta hori, sarritan, Erlijioan bilatzen dute. Bibliara hurreratzea, pedagogikoki egiten denean, benetako aurkikuntza gertatzen da haientzat; bidea irekitzen die Jesusen irudi zintzo eta garbirako, eta Harenganako federako. Gure artean oraindik hasiberria da gertakari hau, baina, itxura guztien arabera, garrantzi handia izango duela iruditzen zaigu etorkizunean.

### **3. Idazki Pastoral honen asmoa**

3. Onartu beharra dago, Bibliarekiko gogoberritze honen eragina ez dela Jainkoaren herri osoarengana iritsi, ezta gutxiago ere. Kristau-elkarteko kide gehienek oso ezagutza eskasa dute Jainkoaren Hitzaren denari buruz, eta Hitz horrek dioenari eta egiten duenari buruz. Ezjakintasun horrek atxikimendu guztiz ahula eragiten du. Espainiar familietakoko %50ak badu etxean Biblia. Familia horietako %2ak baino ez du sarri erabili ohi irakurtzeko. Jainkoaren Hitzaren hain beharrezkoa bada federako, ez dago Elizarentzat haren ezagutza zehatza eta benetako estimua sustatzea baino eginbehar garrantzitsuago eta premia-koagorik. Biblia irakurtzen ikastea, eta testu horren jatorrizko eta gaurko esanahia jasotzen, berarekin otoitz egiten, testu horretatik gure jokabiderako ondorioak atez-

ratzen ikastea, hori ez da sakonki lantzea atsegin izan dezakegun zaletasun horietako baten pareko zerbait. «Idazteunean oinarritzen ez den kristau-espiritualtasunak zailtasunak izango ditu mundu moderno, konplexu, zail, zatitu eta norabidea galdutako honetan bizirik irauteko» (Martini kard.).

Idazki Pastoral honek Jainkoaren Hitzaren ezagutza, baloratu eta erabiltzen jakiteko bidea zabaltzea nahi dizue, Benedikto XVI.a Aita Santuak, dagokion nagusitasunez eta era osoagoan, egingo digun Sinodo osteko Aholku Idazkiaren zain gaudela. Asmo hau betetzeko, hurrengo urratsak egingo ditugu.

### **4. Idazkia urratsez urrats**

4. Egia-zerrenda edota gure jokaera morale-rako gida baino lehenago, Hitzaren Jainkoaren maitasuna adierazten digu: bere bihotza ireki, bere aita-aurpegia erakutsi, bere egitasmo salbatzailea agertu, gure fedea sustatu, guri bihozberritzera eragin, gure atxikimendua lortu eta gu morrontza guztitik askatu nahi gaituen Jainkoaren maitasuna. Mezuaren oinarrian dagoen benetako jarrera adore-emaile hori azalduko dugu Idazki honen lehenengo orrialdeetan.

Jainkoaren hitza ez da doinu soila, abesbatzari dagokion kantua baizik. Abesti honetan, doinu nagusia Jesu Kristo da. Abesti honetako ahots desberdinak (hau da, adiera desberdinak) adieraztea eta guztiak Kristori begira daudela nabarmentzea izango da gure ibilbideko bigarren urratsa.

Jainkoarena izateagatik, hots egindako edota idatzitako Hitzaren ezaugarri guztiz osasungarriak ditu fededunentzat: eraginkortasuna eta gaurkotasuna. Ezaugarri horien azalpena egingo dugu geure aurkezpenaren hurrengo zatian. Giza hitza izanik, bestalde, idatzia izan zen garaiko kultura-baldintzak eta idazleen ezaugarri pertsonalak ere islatzen ditu.

Lotura estua dute elkarren artean Hitzak, Espirituak, Elizak eta Eukaristiak. Lotura hori agerian jartzea izango da ondoren datozten orrialdeen helburua.

Hitza berenganatzen duten ikasle eta transmititzen duten testigu izatea da kristau guztien bokazioa. Izatasun bikoitz honen ondorio praktikoak azaltzen saiatuko gara. Andre Maria izango da guretzat eredu bikaina eta atsegina gogoeta honetarako.

Jainkoaren Hitza zintzotasunez onartzeak eta konfiantzaz iragartzeak jarrera jakin batzuk lantzea esan nahi du; hori azaltzen saiatuko gara ondorengo orrialdeetan.

Hitza entzuteari eta transmititzeari dago-kionean bada hainbat alderdi dituen eta sarritan azaldu ohi den patologia bat. Alderdi horiek ondo nabarmentzen ahaleginduko gara ondoren, horietako bakar batean ere ez erortzeko.

Joan Paulo II.ak eta Benedikto XVI.ak biziki gomendatu digute fede-ikuspegitik eta otoitz-giroan egindako Idazteunaren irakurketa, gure fede-sustapenerako eta eliz berrikuntzarako iturri bezala. Nola sendotu eta bideratu gure elizbarrutietan, Elizan mendez mende hain tradizio handia izan duen jardueran hau? Argibide bakun batzuk eskainiko ditugu bere lekuan.

Kristau-elkarteak bizi duen uneak eta elkarte hori osatzen duten talde desberdinek eliz eta sozial ikuspegitik bizi duten egoerak eta erantzukizunak iradokizun batzuk eskatzen dizkigute, Jainkoaren Hitza nork bere egin eta haren aldeko berariazko zerbitzua argitu eta sustatzeko. Horiekin bukatuko dugu hausnarketa.

## I. JAINKOAK HARREMANA IZAN NAHI DU GUREKIN JESU KRISTOREN BITARTEZ

### 1. Ikuspuntuaren aldaketa argitsua eta suspergarria

5. Kristauok bihotzez eskertzen dugu Jainkoaren Agerpena. Baina, luzaroan, ikuspegi mugatua izan dugu Agerpenari dago-kionean. Jainkoak gure salbamenerako transmititu nahi izan zizkigun egien eta aginduen zerrendatzat hartu ohi genuen soil-soilik. Espiritu Santuak inspiratutako Idazteuna egia eta agindu horiek leial adierazten zituen liburua zen batik bat.

Vatikanoko II. Kontzilioak, antzinako kristaualdiko Eliz Gurasoen ikuspegia jasorik, asko zabaldu zuen Agerpena ulertzeko era eta, horrela, zabaldu egin zigun arima fededunoi.

Jainkoak gure salbamenerako egiak eta aginduak agertu dizkigula aitortzearekin batera, beste hau ere ikasi dugu: lehenengo eta behin, bere Aurpegia eta bere Salbamen-asmoa agertu dizkigula Jainkoak hitzen bitar-

tez zein gertaera salbatzaileen bitartez. Hitzek eta gertaerek osatzen dute Agerpena. «Jainkoaren Agerpenaren asmoa, elkarri estu lotuta dauden eta elkar argitzen duten egintzen eta hitzen bidez gauzatua izan da».<sup>7</sup>

Baina, garrantzitsua izanik ere, ez da hau ikuspuntuaren aldaketa erabakigarriena. Hau da Kontzilioak Agerpenari buruz eman nahi izan zigun irakaspen berezia: Jainkoak, gizadiari dion *maitasunak* bultzatuta, *bere burua* ezagutzera eman eta gurekin harremanetan jarri nahi izan duela. «Agerpen honetan, Jainko ikusezinak, maitasun handiak eraginda, adiskideei bezala hitz egiten die gizakiei eta haien artean bizi da, haiek Berarekin harremanak izatera gonbidatzeko eta bere lagun egiteko» (*Dei Verbum*, 2. zk.). Agerpenak, beraz, «elkarrizketa-egitura du eta oihartzuna sortzen pertsonarengan».<sup>8</sup> Jain-

(7) Elizaren *Dotrina Katolikoa*, 53. zk.

(8) R. BLÁZQUEZ, *De muchas maneras habló Dios en la historia*, Santiago de Compostelan eginiko Hitzaldia (2008-IX-3), 4. or.

koak, bere burua agertzearekin, bere bihotza ireki nahi izan digu, bere adiskidetasuna eskaini eta bere bizian bertan partaide egin nahi izan gaitu; eta guk geure fedearrekin eta bihozberritzearekin erantzutea espero du.

Jainkoaren asmo hau nabari da Agerpenari buruzko Kontzilioaren berariazko idazkiaren hiztegian (*Dei Verbum*). Hitza, solasaldia, elkarriketa, komunikazioa, parte-hartzea, adiskidetasuna... horrelako hitzak dira erabiltzen dituenak, baita Agerpenaren idatzizko adierazpena den Bibliaz hitz egiten digunean ere. «Liburu sakratuetan, zeruetan dagoen Aita bere seme-alaben bidera irteten da maiteki eta haiekin hitz egiten du» (*Dei Verbum*, 21. zk.). «Idazteuna, Jainkoak gizakiei bidali dien Gutuna da» (San Gregorio Handia). Maitasunezko gutuna.

Oker, errealismotzat jotzen dugun eszeptizismoaren eskutik, Jainkoa oso urrun eta mutu ikusteko joera dugu, eta, ondorioz, Jainkoak guri hitz egitea eta, hain zuzen, digun maitasunagatik hitz egitea posible ote den galdetzen diogu geure buruari. Orain badakigu, hori posible izateaz gainera, benetan hala dela. Bera gugandik hurbil dago; ezin du bertan behera utzi Berak hasitako lana. «Gizakiekin harremana izan nahi du eta haiek bila dezatela. Pertsonak gehien nahi duena eta gizatiarra du atsegin Jainkoak: maitatzea eta maitatua izatea».<sup>9</sup>

Badakigu Erm 13, 11-14ko hitzak entzuteak nolako zirrara egin zion San Agustini eta eragin erabakigarria izan zuela haren bihozberritzean. Geroago, era paregabeaz azaldu zuen une haietan berak bizi izan zuena: «Zu nire barnean zeunden; neu nintzen neure baitatik kanpo nengoena. Zu nirekin zinen, baina ni ez nintzen zurekin... Deitu zenidan, oihera egin, eta nire gorreria hautsi zenuen; ukitu ninduzun, eta erretzen nago Zugarako maitemenez».<sup>10</sup>

D. Bonhoeffer teologo luteranoak bere gutunetako batean aitortzen du, Mendiko

(9) *Rencontrer Dieu dans sa Parole*, Gotzain belgikarren adierazpena (Brusela 2008), Licarp argit., 15. or.

(10) SAN AGUSTIN, *Aitorikizunak*, X.

Hitzaldia hausnartzen ari zen batean konturatu omen zela, berak hots egiten zuen Hitza ez zela Jainkoari *buruzko* mezua, *Jainkoak berari* zuzendutako Hitza baizik. Eta aitortzen du, predikari eta artzain bezala esperientzia luzea izan arren, aurkikuntza horrek eraman zuela bihozberritzera. Hortik aurrera indartsu eta bizitasunez otoitz egiten hasi zen. «Orduan hasi nintzen kristau izaten».<sup>11</sup>

Bonhoefferren esperientzia honen antzeko asko gertatu da historian zehar.

Askok ezagutzen ditugu egiaren, ontasunaren, zuzentasunaren, Jainkoaren bila diharduten pertsonak. Hauek, Bibliako hitz batzuekiko harremanean, bilatzen dutena aurkitzen dutenean, «*aurkituak izan diren*» uste sakona izan ohi dute. Aurkikuntza ez da beren bilatzearen fruitu izan, Jainkoaren oparia baizik. Eta Hari eskaintzen diote beren burua fedean.

## 2. Jesu Kristo presente dago Jainkoaren Hitzean

6. «Jesu Kristo presente dago [Jainkoaren] hitzean, Bera da, hain zuzen, hitz egiten duena Elizan Eskritura Santua irakurtzen duenean» (*Sacrosanctum Concilium*, 7. zk.).

Teologiaren arloan mamitsua eta espiritualtasun-arloan aberatsa den baieztapen hau ulertzeko, «Jainkoaren Hitza» esamoldearen esanahi desberdinez jabetu behar dugu.

### 2.1. Jainkoaren Hitza Hirutasunaren baitan

Hirutasunean, Aitaren betiereko Hitza da Semea. Hitz pertsonala eta jainkozkoa, adierazteazina eta Aitaren irudi guztiz leiala. «*Hasieran bazen Hitza. Hitza Jainkoarekin zegoen eta Hitza Jainko zen*» (Jn 1, 1). Hirutasunaren baitan, Hitz honek munduaren eta gizakiaren kreaioan parte hartu zuen Aitarekin eta Espirituarekin. «*Gauza guztiak beronen bidez egin ziren, eta egindakotik ezer ez da berau gabe egin*» (Jn 1, 3). Mundua,

(11) D. BONHOEFFER, Elisabeth Zini egindako Gutuna (1936ko urtarrila), *Rencontrer...* idazkian aipatua, 5. or.

beraz, Jainkoaren Hitzak sortu zuen salbamenaren historiaren agertoki bezala eta Hitz horrek berak sortu zuen gizakia aparteko maitasunaz, bere solaskide, konfiantzazko lagun eta laguntzaile izateko.

## 2.2. Jainkoaren Hitzak profetengan

7. Gizadia eta era guztietako kulturak sortu ondoren, Jainkoak herri bat prestatu zuen, Mesias bere Semea eta Hitzak denaren sehaska izan zedin. Profetak sustatu zituen beraren baitan eta, Hitzak eraginda, Jainkoaren izenean hitz egin zuten, idolatriak, elkartasunik ezak, formalismo erlijiosoak eta neurrigabekeriak tentatutako herriaren burugabekeriak ausardiaz salatuz. Jahwehren izenean kontsolatu zuten herria estualdi eta sufrimendu-garai latzetan; itxaropena eraberritu zioten herriari gertatzekoa zen salbamerako atea irekiz eta Mesiasenganako itxaropena piztuz. Profeta hauen hitzean presente dago Jainkoaren Hitzak eta eragina ematen dio; zerbitzu honetara deitutakoen berezko gaitasunak eta muga pertsonal eta kulturalak islatzen dituzten giza hitzetan agertzen den Jainkoaren Hitzak da.

## 2.3. Jainkoaren Hitzak gizon egin zen

8. Hau da gure salbamen-historiako unerik erabakigarriena; historia honen urrats nagusien azalpena da hemen egiten ari garena. Hirutasun Santuaren baitan osoko eta zorionezko ozeanoan gorderik bizitzeko ordez, Jainkoaren Semeak, Hitzak, geure antzeko gizon egin nahi izan zuen maitasunez, Aitak eta Espirituak bidalita. «*Hitzak gizon egin zen eta gure artean jarri bizitzen*» (Jn 1, 14).

Gizon hau, Jesus, bakarra eta errepika ezina den Jainkoaren Hitzak da. Jainkoa Harengan dago; baina ez hori bakarrik, gizon egindako Jainkoaren Semea da. Harengan, Jainkoa oso-osorik, den bezalakoa, agertu zaigu. Hura da Hitz osoa eta behin betikoa. «Izan ere, bere Semea eman zigun bezala ematean, bere Hitzak baita –eta ez du besterik–, hitz guztiak batean eta behingoan hitz egin zituen Hitz bakar honetan; eta ez du esateko besterik» (Gurutzeko San Joan).

Jainkoaren Hitzak da haren bizitza osoa, Mariaren sabelean sortu zenetik pazkoan Apostoluei Espiritu Santua isuri zien arte (Jn 20, 19-22). Hitz horren bitartez esaten digu nor den bere Aita Jainkoa: errukia, leialtasuna, maitasuna. Hitz horren bitartez erakusten digu zer izan nahi duen gizakientzat: maite gaituen Aita, onartzen gaituen senidea, bere Semearengan giza izatasunaz janzten den adiskidea, guk jainkozko haren izatasunean parte izan dezagun.

Jesus, aginpide osoa duen Hitzak da. Hari ez «datorkio» Jainkoaren Hitzak profetei edota Bataiatzaileari berari bezala. Bera Jainkoaren Hitzak da. Sendatzen duten hitzak ateratzen dira Harengandik, bekatuak barkatzen dituzten, suspertzen eta kontsolatzen duten, interpelatzen eta ohartarazten duten, makalak defendatzen dituzten, zapaltzaileei aurka egiten dieten hitzak. «*Onartu ez zutenek*» (Jn 1, 11), Nekaldira eta Heriotzara eramane zutenek ez zituzten hitz hauek bere egin. Aitak berpiztu egin zuen eta den guztiaren eta guztion Jaun egin zuen.

## 2.4. Jainkoaren Hitzak

### *Apostoluen predikuan*

9. Pazko Hirurreneko gertaeren ostean eta hasierako kristau-elkartea sortu ondoren, Jesu Kristok Apostoluei eman zien bere Hitz salbatzailea. Ez zien agindu bere Hitzaren «errepikatzaile» izateko bakarrik, Hitz horren testigu eta zerbitzari izateko baizik. Apostoluen predikua Jainkoaren Hitzak izatea nahi zuen Jesu Kristok, antzeko era batean, baina egiaz. Apostoluen hitzean Bera pertsonalki presente egongo zela agindu zuen. «*Zuek onartzen zaituztenak neu onartzen nau, eta ni onartzen nauenak bidali nauena onartzen du*» (Mt 10, 40). Aldi berean, bere Espiritua haiekin egongo zela agindu zien Jesusek, Beraren aldeko testigantza ematera koan (Mk 13, 11). Hitz apostolikoa Kristoren beraren hitza dela bermatzen du agintzari bikoitz honek.

## 2.5. Jainkoaren Hitza Idazteunean

10. Profeta batzuek idatziz jaso zituzten beren hitzak. Horrela jokatu ez balute, gaur egun ez genukeen haien mezu aberatsetik ia ezertxo ere izango. Itun Berrian laster sumatu zen beharrezko zela gure Jaunaren bizitza, jarduera, hitzak, Heriotza, Piztuera... idatziz jasotzea. Lukasen asmoa, «*hasieratik guztia zehatz-mehatz aztertu ondoren*», «*dena bere harian idaztea*» izan zen, etorkizuneko belaunaldiek «*jasotako irakaspenak zeinen finkatuak dauden ikus*» zezaten (Lk 1, 1-4). Behar hori bera nabaritu zuten Apostoluek eta haien laguntzaileek, eta idatziz jaso zituzten beren irakaspenak.

Profetek iragarri, Jesusek eskaini eta Apostoluek hots egindako Jainkoaren Hitza idatziz jasotzeko erabakia ez zen zehaztasun handiagoz gordetzeko eta irakaspen horren aldarrikapena errazteko ekimen pragmatiko hutsa izan. Espiritu Santuaren ekimen berezia izan zen. Hark lagunduta, Eliza Tradizioaren ibaian murgildu zen eta Espiritu honek inspiraturiko idazkiak bereizten eta onartzen jakin zuen. Idatzizko Hitz hau da, nagusiki, Elizaren fedearen elikagaia. «Espirituak, horrela, Jainkoak berak inspiratutako Hitza ziurtatu nahi izan du, jarraipen egonkorragoa eman ez eta leialago gordez».<sup>12</sup> Jainkoaren Agerpena Tradizio bizitik datorrigu guri, eta bere barnean sortu zen Idazteunetik. Biak dira beneragarriak. Baina Idazteunak, Tradizioan oinarriturik, Elizaren bizitzan duen zeregina guztiz berezia da.

«Beharrezko da, beraz, eliz prediku guztia, kristau-erlijioa bera bezala, Eskritura Santuaz janaritua eta hark gidatua egotea... Elizaren euskarri eta kemen baita, fedearen sendotasun bere seme-alabentzat, arimaren janari, bizitza espiritualaren iturri garden eta betiereko» (*Dei Verbum*, 21. zk.). Bibliak, benetako bere egile den Espiritu Santuak inspiratuta egotea du berme paregabea.

(12) MARTINI Kard., *In principio la Parola* Idazki Pastoral, Anbrosioar Zentroa: Documentazione Studi Religiosi, Milan 1981, 45. or.

Hala eta guztiz ere, Idazteunak ezinbestekoa du Tradizio bizia, honi estu lotuta baitago. Apostoluengandik datorren Elizaren izateak, esateak eta sinesteak aberasten duen eta, Espiritu Santuaren eraginez, garbitua dagoen Tradizio hau nahitaezko bermea da Idazteunaren egiazko interpretaziorako. Espirituak egindako garbitasunak bereizketa egiten du egiazko Tradizioaren eta bigarren mailakoak eta agian kontrakoak ere izan daitzkeen eliz tradizioen artean.<sup>13</sup>

Aparteko duintasuna du Elizarentzat Idazteunak. Eliz Gurasoen bideari jarraituz, parekotasuna aurkitzen du Idazteunean jasotako Jainkoaren Hitzaren eta Mariaren sabelean gizon egindako Jainkoaren Hitzaren artean. Bibliako testua gizon egindako Jainkoaren Hitzaren gorputz idatzia bezala izango litzateke. «Jainkoaren hitzak, giza hizkuntzetan adieraziak, giza hizkeraren antzeko bihurtzen dira, Aita Betikoaren Hitza, giza gorputz argala hartuz, gizakien antzeko egin zen bezala» (*Dei Verbum*, 13. zk.).

Ez dira, beraz, gehiegikeriak, Origenesek III. mendean idatzi zituen hitzak: «Ondotxo dakit nolako arduraz gordetzen duzuen Jaunaren Gorputza zuen ardurapean uzten dutenean, haren zatiren bat nonbait jausiko zaituzuen beldur. Haren Gorputza dela eta, zentzuz jokatzuz, hainbesteko ardura erakusten baduzue, errieta txikiagoa merezi duela uste al duzue Jainkoaren Hitzaren gaineko axolagabekeriak haren Gorputzaren gainekoak baino?».<sup>14</sup> Benetan, miretsi eta sendotu egiten gaituzte *Dei Verbum*, 21. zk. hasierako hitzek: «Elizak benerazio handia izan dio beti Eskritura Santuari, Jaunaren Gorputzari izan dion bezalaxe»

## 2.6. Jainkoaren Hitza Elizaren predikuan

11. Hitzak historian zehar duen ibilbidea ez da izozturik gelditzen Jainkoaren Hitza idatziz jartzearekin. Elizak mendez mende eta munduan barrena Hitz hori entzuten eta hots egiten jarraitzen du. Hitzak, era askotara egiten den prediku biziaren bidez, aurrera

(13) Ik. KASPER Kard., *Escuchar la Palabra de Dios con devoción y proclamarla con valentía. La Constitución dogmática "Dei Verbum" sobre la Revelación*, Bibliarako Federazio Katolikoa, 7. or.

(14) ORIGENES, *In Exodum*, 13. Homilia, 3.

jarraitzen du bere ibilbidean, besteak beste eta batez ere, iragarpenaren, katekesiaren eta liturgi ospakizuneko homiliaren bidez. Kristoren aginduak, eta haren presentziaren eta Espirituaren eraginaren promesak indarrean dira. Jesusen promesak eta haren Espirituaren eraginak bide ematen digute Elizaren predikua Jainkoaren Hitza dela esan ahal izateko benetako eta berariazko adieran, nahiz eta era analogoan; baina baldintza batekin: Idazteuna izan dadila prediku horren arima, araua eta elikagaia, eta bat etor dadila Elizaren fedearekin. Benetan harritu eta ikarratu ere egiten gaitu egia honek, erantzukizun izugarria eskatzen baitzaio Elizaren eta eliz zerbitzarien predikuari.

12. Hausnarketa honen argira, hobeto uler dezakegu, beharbada, zati honek darman goiburua esanahia:

## II. JAINKOAREN HITZA BIZIA DA: ERAGINKORRA ETA GAURKOA

*«Bizia da Jainkoaren hitza, bizia eta eragin handikoa, aho biko ezpata bera baino sarkorragoa: gogoaren eta espirituaren sarkon-sakoneraino sartzen da, pertsonaren zokorik ezkutuenaraino, eta barneko pentsamendu eta asmo guztiak miatzen ditu. Ez da harentzat munduan ezer gorderik» (Heb 4, 12-13).*

### 1. Hitz eraginkorra

13. Jainkoaren Hitza ez da beti literatur zati distiratsua izan ohi. «Izan dira liburuak –baita izango ere– Bibliako liburu asko baino hobeak, dotoreagoak eta onbiderako eragin handiagoa ere dutenak. Baina maisulan horietako bakar batek ere ez du liburu inspiratu apalenaren eraginik izango. Bibliako hitzetan begi-bistakoa den desoreka nabari da hitzezko zeinuaren eta honek eragiten duen errealitatearen artean. Idazteuneko hitzek badute nolabaiteko eragin-indarra inolaz ere esplikatu ezin dena» (Cantalamesa).

Jesu Kristo presente dago Hitzean, Berari buruz hitz egiten baitu oso-osorik Hitzak. Mesiasen itxaropenak zeharkatzen du Itun Zaharra. Itun Berriaren idazleek ere ulertu zuten Itun Zaharra ulertzeko giltza Kristo zela. Espiritu Santuak inspiratu eta Elizak hasiera-hasieratik beneratu izan duen Itun Zaharrak Itun Berriaren argira hartzen du bere zentzu bete. Eta Itun Berri osoak Jesu Kristo du bere ardatz eta orpo. Kristoren Misterioari buruzko katekesi zabala da.

Jesu Kristo presente dago Hitzean, hau, iragarpen-mota desberdinetan, gizon egindako Hitzaren, hots, Jainkoaren Semearen adierazpen delako. Bera presente dago iragarpen-mota hauetan guztietan, eta Bera da horien guztien arima. «Kristoren lurrin gozoa dute».<sup>15</sup>

Teologiako hizkeran esanda, Jainkoaren Hitza eraginkorra da.

Teologia katolikoa gehiago arduratu izan da Jainkoaren Hitzaren egia defendatzeaz, Hitz horren *eraginkortasuna* azpimarratzeaz baino. Teologia protestantea izan da (batez ere Karl Barth) funtsezko alderdi hau sakonago aurkitzen eta baloratzen lagundu diguna: Jainkoaren Hitzak egin egiten du esaten duena. Santa Teresa Jesusenak esaldi argitsu betean adierazi zuen pentsamendu hori bera: «Jainkoaren hitzak egintzak dira».

Hizkuntza-zientziek giza hitzaren izaera «performatiboa», hau da, eraginkorra nabarmendu dute. Estalki ahul baten bidez adostasunak sortzen ditu, elkarteak eraikitzen, poztasuna eragiten, maitasuna pizten, itxaro-

(15) ASISKO SAN FRANTZISKO, RODRÍGUEZ CARVALLO, OFMko Ministro Nagusiak egindako aipamena, in *Mendicantes de sentido, de la mano de la Palabra*, Erroma 2008, 15. zk.

pena ereiten. Baina, era berean, giza hitza pobrea da: hutseginkorra, gaixotasunak sendatzeko eta irrikatutako arrakastak ziurtatzeko ahalmenik gabea, zalantzazkoa eta aldakorra eta, batzuetan, suntsitzailea ere bai.

Jainkoaren Hitza, ordea, eraginkorra da maila guztiz bikainean. «*Ez dut Berri Ona zabaltzeko lotsarik, Jainkoaren indarra baita fededun guztiak salbatzeko, juduak lehenengo, baina baita judu ez direnak ere*» (Erm 1, 16). Jainkoaren Hitza sortzailea da, izatea ematen dio existitzen ez denari: «*Eta Jainkoak esan zuen: izan bedi argia. Ikusi zuen Jainkoak argia ona zela... Jainkoak esan zuen: izan bedi sabaia uren artean... Eta hala izan zen*» (Has 1, passim). Jeremias profetak beldurtuta eta uzkur zegoen Jahwehren deiaren aurrean, baina Hark ahoa ukitu eta esan zion: «*Neure hitzak jartzen dizkizut ezpainetan; agintea ematen dizut gaur erreinu eta nazio guztien gain, erauzi eta iraultzeko, hondatu eta eraisteko, eraiki eta landatzeko*» (Jr 1, 9-10). Is 55, 10-11 txataletan hau dio Jahwehk: «*Euria eta elurra zerutik jaitsi eta ez dira bertara itzultzen, lurra urez ase gabe, emankor bihurtu eta ernamuindu gabe, ereiteko hazia eta jateko ogia sor ditzan; berdin nire ahotik irtendako hitza ere: ez da niregana itzultzen bere eragina izan gabe, baizik eta nik nahi dudana egiten du eta nik ezarritako helburua betetzen*».

14. Jesusek, Ebanjelioetan, bere Hitzaren indarrak gaixoak sendatzen ditu (Mt 8, 3; Mk 7, 34; Lk 7, 14); espiritu gaiztoak jaurtitzen (Mt 8, 32); izadia menperatzen (Mk 4, 39); bihotzak Jainkoarengana bihurtzen ditu eta bekatuak barkatzen (Mt 9, 6); giza biziak berritzen (Jn 4). Haren hitza giza bihotzaren barru-barruraino sartzen da eta han bizia sortzen. «*Inork ez du gizon honek bezala hitz egin*» (Jn 7, 46), esango dute liluratuta bere entzuleek.

Jainkoaren Hitzak bere era guztietan du indar salbatzaile hau. Baina Idazteunak, fedez eta espiritu apalez nork bere egiteko borondatez aldarrikatzen edo entzuten denean, aparteko indarra du. Inor ez da lehen bezala geratzen Jainkoaren Hitza entzun ondoren.

Bere erruz uko egiten diona edota arinkeriaz jaramonik egiten ez diona, entzun aurrekoa baino egoera penagarriagoan geratzen da. Jainko biziaren Hitzarekin ez dago jolasean ibiltzerik.

Altxor baliotsua dugu Idazteuna, Hitza maiz entzunez «*Jaunaren pentsamendua*» (1 Ko 2, 16) geureganatzeko, hau da, haren pentsamoldea, sentsibilitatea, baloreak, Aitarekiko atxikimendua izateko eta pobreengana hurbiltzeko. Horrela Hitzak, apurka-apurka, bihozberritu eta salbamenaren jainkozko egitasmoan sartzen gaitu. Kristau-elkartea etengabe eraikitzen aritzera bultzatzen gaitu. Argi-izpia eta kontsolamendua eskaintzen dizkigu larrialdietan. Ausardia ematen digu, elkartasuna, geure hauskortasunaren kontzientzia, axaleko gure gurarien gain erne egotea, gure misioa betetzeko leialtasuna eta etsi gabe irauteko itxaropena.

«Ba ote dago ezer larriagorik eta bekatuzkoagorik Idazteuna ez irakurtzea baino edota irakurketa hori alferrikakoa dela eta ezertarako ez duela balio uste izatea baino?»<sup>16</sup>

Dena dela, ezinbestekoa da gaizki-ulertu bat argitzea: Jainkoaren Hitza eraginkorra izateak ez du esan nahi beti betetzen denik. Jainkoaren Hitzaren eraginkortasuna ez da magikoa: entzuleak, arduratsu, ahalegin pertsonala eta berariazkoa egiten ez badu, ez da beteko. Guztiz argitzailea da ereilearen parabola (Mk 4, 1-9). Biziaren promesa berekin duen hazi on eta sanoak, galburu bihurtu arte, ibilbide luzea duen bezala, entzundako Jainkoaren Hitzak ere ibilbide luzea du bere aurrean gizakiaren «bihotzera» iritsi arte, irizpideak, aukerak eta jarrerak sortzen diren bizi-gunera iritsi arte. Hazia lursail harritsuan edo sasi artean alferrik galtzen den bezala, Hitza ere arinkeriaz, sentsibilitaterik ezaz edota gure pasioen indarrez harrapatuta gera daiteke, eta geratu ohi da. Ohiko irakurketa jarraituak bakarrik bigundu dezake bihotz-gogortasun hori eta ireki dezake, traba horien artean, bidea etorri datorren Hitza-

(16) SAN JOAN KRISOSTOMO, *In Matheum*, 2, 5 (PG 57).

ri harrera ona egiteko. Traba horiek gainditurik, Hitzza bihotzera heltzen denean, betetzen da egiaz Hitzaren eraginkortasuna. Orduan esan dezakegu Antiokiako Ignazioarekin: «Ebanjelioan aurkitzen dut babes, Kristoren Haragian bezala».

## 2. Gaurko Hitzza

15. «*Isaias profetaren liburua eman zioten eskura...; denak sinagogan begira-begira zeuzkan. Eta honela hasi zitzaion: gaur bete da profetia hau entzuten didazuenontzat*» (Lk 4, 17. 20-21). Profetak 550 urte inguru lehenago esandako hitzak (Is 61, 1-3) Nazaretoko «gaur» eta «hemen» hartan bete ziren. Testuinguru jakin batean esanak ziren. Testuinguru berrian eguneratuak izan ziren. Jatorrian esan ziren unean bezain eguneratuak eta egokituak. Ez daude espazioaren eta denboraren lauki bati «kateatuta». Zerbaitegatik dira *Jainkoaren* Hitzza. Aldi guztietan garai-kide da, eta leku guztietara hedatzen da.

Idazteuna ez da, beraz, duela denbora asko beste testuinguru batean hots-egina izan eta «kontserban» gorde den hitza, gure egunotan ere baliagarri izan dakigun. Alderantziz, hitz bizia eta *gaurkoa* da, entzuten dudanean neuretzat edo elkarte jakin bantentzat hots egiten den hitza. Mende asko lehenago esandako jatorrizko Hitzari lotua dago, baina salbamen-egoera berria sortzen du. Orduan, izozturik zegoela zirudien hitza «piztu egiten da», argirik gabea zirudiena, garden bihurtzen da. Espiritu Santuak bizitu egiten du, fedez entzuten dutenen salbamerako. Horregatik, Kontzilioak (*Dei Verbum*, 21. zk.) orainaldia darabil honako hau baieztatzen duenean: «*Liburu Santuetan, zeruetan dagoen Aita bere seme-alaben bidera irteten da maiteki eta haiekin hitz egiten du*».

Hona hemen sarritan antzematen den gabezia bat: Bibliarekin dugun harremana liburuarekiko harremana izatea, eta ez liburu horren Egilearekin. Jainkoaren Hitzza entzutean, bi subjektu taupakari eta bizi elkartzeko dira alde batetik eta bestetik, elkarren artean ko-

munikatu nahi dutenak eta «elkarri esateko asko dutenak». Ez. Biblia ez da eduki espirituala duen liburu hutsa. Hitzaren bitartez bere burua agertzera eman nahi digun eta gurekin maitasunezko harremana izan nahi duen Norbaiten Hitz bizia da.

Jainkoaren Hitzza gaur egungoa bada, gaur egungoak dira elkarketa horretako inguru-barrak ere. Geure bizitzan eta inguruan ere baditugu leprak, elbarritasunak, sukarrak, espiritu gaiztoak, ekaitz berriak eta behartsu berriak... Hitzak dei egiten digu horien bidez Jaunaren bidera atera gaitzen. Hitz batean, Hark egiten digun deira bihotza zabalik ote daukagun edota eragozpenak jartzen ote dizkiogun kontura gaitzen.<sup>17</sup> Zakeoren etxera joateko gogoia agertzen duen Jesusi entzuten diogunean (Lk 19, 1-10), geuri egiten digu bisita. Beti marmarrean ari ohi direnei entzuten diegunean: «*Bekatari baten etxera joan duk ostatuz*», bekatari hori neu naiz. Jesusen hitzak entzuten ditudanean: «*Gaur iritsi da salbamena etxe honetara... Izan ere, Gizonaren Semea galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da*», neuk ematen dizkiok eskerrak Jaunari, bilatu eta aurkitu egin nauelako. Eta irakurketa hau ez da nork bere nahierara jainkozaletasunez egindako moldaketa bat, Jainkoaren Hitz biziaren gaurkotze guztiz bidezkoa baizik.

## 3. Jainkoaren Hitzza eta gizakiaren hitza

16. Nahikoa da Itun Berriko eta Zaharreko idazkiei begirada bat ematea, giza hitzaren aurrean gaudela konturatzeko; hain zuzen, bere aberastasuna eta mugatasuna dituen, eta kulturaz eta kultura gainditzen duen bikaintasunaz igurtzia dago hitz hori. Espirituak eta honek inspiratutako idazle-multzo ugari batek, biek elkarrekin, egindako lanaren aurrean gaude.

Espirituak idazle santua goiargitzen duenean, ez du bere giza izatasuna ezeztatzen. Ez du bere baldintza psikologiko, soziologi-

(17) Ik. BADIOLA, *Dios se dice en su Palabra*, Espainiako Iparraldeko Teologia Fakultatearen sorrerako urtemugan egindako hitzaldia, 9. or.

ko eta kulturaletik ateratzen. Baldintzapen horiek guztiak onartu egiten ditu eta, horrela, idazki osoa Espiritu Santuaren eta giza egilearen egintza da, Espirituak bere bermea ematen dio liburu inspiratuetan «gure salbamenerako» idatziz jasotako egiari (ik. *Dei Verbum*, 11. zk.). Giza idazleek beren ikuskera antropologiko, kosmologiko, bakun eta «prezientifikoei» eusten diete, gaur egun munduaren ikuspuntu zientifikoagoak gaindituak dituen ikuskerak, hain zuzen. Honek ez du Jainkoa «haserretzen», ezta gutxiago ere. Eliz Guraso greko batzuen hitzetan, Hark mugak jartzen dizkio bere buruari, «es-

tutu» eta «uzkurtu» egiten da, gizakiekin harremanetan jarri ahal izateko.

Jainkoaren Hitza ez da, beraz, giza hitzen *artean* ereindako jainko Hitza, giza *hitzean* dagoen jainko Hitza baizik. Jaunaren jokaera honek ez du bere santutasuna gutxitzen. Aitzitik, «Eskritura Santuan betiko Jakinduria “guregana moldatze” miragarria agertzen da... haren onberatasun esanezinekoa ikas dezagun eta zenbateraino moldatu duen bere hizkera, gure izaeraren kontua eta ardura izanez» (*Dei Verbum*, 13. zk.).

### III. HITZAREN, ESPIRITUAREN, EUKARISTIAREN ETA ELIZAREN ARTEKO AHAIDETASUN ESTUA

Ezin dugu atalburu honetan aipaturiko errealitate nagusi bakar bat ere ulertu beraien artean dagoen lotura estua agertzera eman gabe (elkarrekiko immanentzia baten antzekoa).

#### 1. Hitza eta Espiritua

17. «*Liburu Santuetan idatzirik dagoen guztia Jainkoak inspiratua da eta irakas-teko, arrazoiak emateko, okerrak zuzentzeko eta biziera zuzenean hezteko baliagarria; horrela, Jainkoaren gizakia guztiz hornitua gertatzen da, edozein eginbehar onetarako prest*» (2 Tm 3, 16-17). Elizaren fedea Idazteun osoa (Itun Zaharra eta Berria) Espiritu Santuaren egintza dela aitortzen du. Espiritu Santuak «Jaun eta bizi-emaileak..., profeten ahoz hitz egin zuela» aitortzen du Nizea-Konstantinoplako Kredoak. «... Itun Zaharreko nahiz Itun Berriko liburu guztiek, Espiritu Santuaren inspirazioz idatziak, Jainkoa dute egile eta halakotzat eman zaizkio Elizari berari» (*Dei Verbum*, 11. zk.) berresten du Vatikanoko II. Kontzilioak.

Espirituak ez zuen profeten eta Itun Zaharreko gainerako idazleen hitza inspiratu ba-

karririk. Hitz horiek transkribatzea ere inspiratu zuen, horrela beren transmisioa hobeto ziurtatzeko. Espirituak Jesus, Aitaren Hitza, bete egin zuen eta bikaintasunez gidatu mundu honetako bere ibilbidean (Lk 3, 22; 4, 18). Espiritu berak inspiratu zituen ebanjelariak, Jaunaren hitzak eta egintzak idatziz jaso zitzaten. Espiritu honek berak erein zuen Itun Berriko idazleengan idazki apostolikoak idazteko ekimenaren hazia eta erabaki ere idazki horietako gaia. Azken finean eta ondorioz, Idazteuna Espiritu Santuaren egintza da. Presente dago eta ekilea da Espiritua hasiera-hasieratik.

Baina Espiritu Santua ez dago bakarrik Idazteuneko liburuen sorreran. Goiargia eman zien Hura presente dago eta ekilea da liburu horietan eta horiek entzutera hurbiltzen direnengan. Bere Semearen egintza salbatzailea Espiritu Santuaren eraginez gure artean gaurkotzea nahi izan du Jainko Aitak. Kristoren Hitz eraginkorrak «bizitasuna hartzen du» eta gaurkotasuna berreskuratzen Espiritu Santuaren esku-hartzeaz, liturgian hots egiten denean, katekesian irakurtzen edota fede-jarreraz eta otoitz-giroan Hitzaren irakurketa egiten denean. Idazteunera espiri-

tu irekiaz hurbiltzen garenean, Espiritu Santuak bere lana egiten du gure baitan. Nekazal inguruko irudia erabiliz, Espirituak Hitzaren hazia sustatzen duela eta, aldi berean, entzuten dutenen lurra irauli eta prestatu egiten duela esan dezakegu.

Testuinguru honetan hobeto ulertzen ditugu Ignazio Hazimek, Antiokiako Ignazio IV.a Patriarka ortodoxoak, bilera ekumeniko gogoangarri batean esandako hitzak: «Espiritu Santurik gabe, Kristo iraganekoa da; Ebanjelioa, letra hila; Eliza, erakunde soila; predikua, propaganda hutsa; liturgia, oroitzapen magikoa; kristau-jokaera, esklaboen moralara».

18. Liburu santuen sortzailea den Espiritua, haien interprete nagusia ere bada. «Espiritu Santua, Idazteunaren egilea dena, Bera da haren interpretazio zuzenerako gidaria ere».<sup>18</sup> Erromako Batzorde Biblikoak dioenez, Biblia Jainkoaren herri osoaren altxorra denez, denak dira, era batera edo bestera, partaide haren egiazko interpretazioan: exegetak, santuak, pobreak, kultura- eta gizarte-egoera jakin batzuetan bizi direnak eta berriazko inguruabarrak jasaten dituztenak. «Jainkoaren hitza, idatzia nahiz tradiziozkoa, benetan interpretatzeko zeregina» (*Dei Verbum*, 10. zk.) duen Elizaren Irakaspenak du azken hitza. Elizako artzainek Kristoren ize-nean gauzatzen dute eginkizun hau eta Espiritu Santuaren laguntza dute misio zail hau bete ahal izateko. Jakin badakite Irakaskuntza ez dagoela «Jainkoaren Hitzaren gainetik, beronen zerbitzura baizik: tradizioz helarazi zaiona besterik ez du irakasten, hura baitu, Jainkoaren aginduz eta Espiritu Santuaren laguntzaz, debozioz entzuten, santuki gordetzen eta leialki azaltzen» (*Dei Verbum*, 10. zk.).

Espirituak Jainkoaren Hitza sustatzen badu eta onartzera eta emankor bihurtzera bultzatzen bagaitu, badago testu santuarekin harremanean jartzen garenean ahaztu behar ez dugun zerbait: esker onez aitortu eta irrikaz eskatu Espiritu honen ekintza bizia.

(18) Gotzainen 2008ko Sinodoa, 5. proposamena.

## 2. Hitza eta Eukaristia

19. «Ondoren, elkarrekin mahaian jarri ziren, eta Jesusek, ogia harturik, bedeinkazioa esan, zatitu eta eman egin zien. Orduan, begiak ireki zitzaizkien eta ezagutu egin zuten, baina Jesus desagertu egin zitzairen begi aurretik. Haiiek elkarri esan zioten: ez al geneukan barrua sutan, bidean Liburu Santuak azalduz mintzo zitzaiguneean? Berehala jaiki eta Jerusalemera itzuli ziren... Bi ikasleek bidean gertatua eta nola ogia zatitzean ezagutu zuten kontatu zieten» (Lk 24, 30-35).

Emausko kontakizuna bitxia da benetan, «ebanjelio txikia, esan daiteke, Ebanjelioaren barruan». Argi egiten digu, Hitzaren eta Eukaristiaren artean eta, orokorrean, Hitzaren eta Sakramentuaren artean dagoen lotura estua ulertzeko.

Jesus bi ikasle haien bidelagun egiteak eraldaketa nabarmena eragiten du ikasleen bihotzean. Jaunaren Hitzak errealitatea beste begi batzuek ikusarazten die. Ez da errealitatea aldatu; begiak aldatu dira, errealitate hori era berri batean ikusteko. Hitz honek etsipenetik itxaropenera daramatza, etsialditik poztasunera. Nekaldiaren traumatismoak eragindako zauria sendatzen du. Aitorpena prestatzen du. Lagun Arrotzarekin egindako Afari eukaristikoak bukatu eta burutu egiten du Hitzaren salbamen-egintza: Jesus ezagutzen dute ogia zatitzean. Jesusekiko bat-egitea, hemendik aurrera, osoa da... laburra bada ere. Hitzak eta Eukaristiak beren pazko-esperientzia berehala iragartzeko misiora bultzatzen ditu.

Emausko pasarteak Eukaristian gaurkotzen diren Hitzaren ospakizuna eta azken Afariaren oroitzapena gogoratzen ditu. Teologia eta espiritualtasun protestanteak «plater nagusia» Hitzaren ospakizuna hartzeko joera du, Eukaristia (Afaria), berriz, haren osagarri bezala. Luzaroan, ikuspegi katolikoan, Eukaristiako sakramentuaren aurretik egiten den zerbait bezala hartu izan da Hitzaren liturgia. Askok gogoratzen dugu oraindik, fededunak Ebanjelio ondoren berehala parte hartzen bazuen Mezan, betetzen zuela igan-

deko agindua. Pentsamolde horren arabera, Hitzaren liturgia katekesiari eta pedagogiari dagokion zatia litzateke, eta Eukaristia, misterioari eta salbamen-arloari dagokiona. Lehenengoak irakatsi egingo luke; bigarrenak salbatu; lehenengoak gizakiaren jarduera azpimarratuko luke; bigarrenak, Jainkoaren jarduera. Ez da beharrezkoa ikuspuntu honek dituen hutsune teologikoetan sakontzea.

20. Benetan, Hitza eta Eukaristia ezin dira elkarrekin trukatu. Aitarekiko batasuna Kristorengan eta senideekin Eukaristian benetako gailurra da, eta Idaztenueko goranzko bide-zidorretatik igotzen da bertara. Eukaristia eta sakramentuak era emankorragoan ospatzera zuzendua dago Hitza. Era berean, Eukaristiak Idazteunean ditu bere sustraiak. Eukaristi Otoitzeko hitz nagusiak Jaunaren pazko Afariaren Ebanjelioko kontakizuna dira, hain zuzen ere. «Jainkoaren Hitza haragi egiten da sakramentuz Eukaristiako gertaeran eta (gertaera honek) bere betera eramaten du Idazteuna».<sup>19</sup>

Bereiztezina den lotura hau ondorengo hitz hauen bitartez adierazi zuen Kontzilioak (*Sacrosanctum Concilium*, 56. zk.): «Hitzaren liturgia eta Eukaristiarena estu-estu bat eginak daude, eta kultuko egintza bakarra osatzen dute». Horrek esan nahi du, Hitza hots egitea ez dela salbamenaren iragarpena bakarrik, salbamen-gertaera baizik. Esan nahi du gainera, Eukaristiaren ospakizuna gertaera izateaz gain, iragarpena ere badela. Izan ere, «*ogi honetatik jaten eta kaliza honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, bera etorri arte*» (1 Ko 11, 26).

Ondo oinarrituak daude, beraz, Kontzilioko hitzak: «Elizak etengabe hartzen du biziaren ogia, bai Jainkoaren Hitzaren eta bai Kristoren Gorputzaren mahaitik» (ik. *Dei Verbum*, 21. zk.). Duela mende asko idatzi zuen «Kristoren imitazioa»<sup>20</sup> deritzanaren egileak: «Gaixo bati bezala eman didazu zeure Gorputz santua arimaren eta gorputza-

ren sostengurako, eta zeure jainkozko Hitza nire urratsak gida ditzan, argiontzi baten antzera. Bi gauza hauek ez banitu, ezingo nintzateke zuzen bizi. Jainkoaren Hitza arimarentzat argi delako eta zure Sakramentua bizia ematen duen ogi. Bi gauza hauek zure Eliza Santuko altxorrean kokatutako bi mahai bezala dira».

### 3. Hitza eta Eliza

21. «Jainkoaren Hitza da egiaz Elizaren euskarri eta kemen, fedearen sendotasun bere seme-alabentzat, arimaren janari, bizitza espiritualaren iturri garden eta betiereko» (ik. *Dei Verbum*, 21. zk.). Horregatik, «Elizaren bizia Eukaristiako misterioan sarri-sarri esku hartuz garatzen den bezala, uste izatekoa da era berean, “betiko dirauen” Jainkoaren Hitzarekiko benerazioa areagotuz, bizitza espiritualak indar berria hartuko duela» (*Dei Verbum*, 26. zk.).

Hitzak eta Eukaristiak eraikitzen dute Eliza. Hitzak Elizaren sorkuntzan eta eraberritzean duen egitekoa argitzea eta nabarmentzea izan da batez ere ospatu berri den Sinodoaren helburua, bere goiburu argitsuak erakusten digunez: «Jainkoaren Hitza Elizaren bizitzan eta misioan».

Hitzaren eta Elizaren artean dagoen erlazioa mailaka elkarrekin lotuak dauden hiru baieztapen hauen bitartez azal dezakegu.

#### 3.1. Eliza Jainkoaren Hitzetik jaiotzen da eta bizitzen

Apostoluen Eginen liburuan eta Pauloren gutunetan zera ikusten dugu: Apostoluek iragarritako Jainkoaren Hitzak elkarte jaioberriak biltzen dituela beraren eta Apostoluen inguruan. Jainkoaren Hitza, Eukaristiarekin batera, elkartasun-sortzaile da. M. Legidok, hitz-jokoa eginez, egoki adierazia duen bezala: «Hitza dei egiten dio Elizari (“*convoca*”), Eukaristiak elkartu (“*congrega*”) eta ministerio apostolikoak gidatu (“*conduce*”)». Ondorioz, zenbat eta handiagoa izan Jainkoaren Hitzarekiko benerazioa eta

(19) Gotzainen 2008ko Sinodoa, 7. proposamena.

(20) T. KEMPIS, *Kristoren imitazioa*, IV. liburua, 11. kap.

harrera on praktikoa, orduan eta indartsuago jaioko dira eta haziko kristau-elkarteak.

### 3.2. *Jainkoaren Hitzak eusten dio Elizari historian zehar*

Sortu zen kultura-giro oldarkorra zela-eta, bizitza laburra iragarri izango geniokeen elkarre ahul eta jaioberriak zailtasun handiak gainditu zituen eta judaismoaren barnean preso ez geratzea lortu zuen. Jesusen oroimenak, pazko-esperientziak, Piztueraren ikuspuntutik egindako Itun Zaharraren irakurketak eta Apostoluen gutunek bere nortasunean irauten lagundu zioten. Itun Zaharra eta Berria izan ziren hurrengo mendeetan, kultura grekoaren barnean, haren nortasunari eutsi zion mistika. Zailtasunak zailtasun, Jainkoaren Hitzak eutsi izan dio nortasun berari Erdi Aroan eta Aro Berri edo Modernoan. Gaur ere Hitz horrek eusten dio eta eusten jarraituko du aurrerantzean (horrela sinesten dugu irmotasunez), gero eta botere-tsua, fedegabea eta fededunen beraien mentalitateari eta sentsibilitateari eragiteko indartsuagoa den mundu honen erdian. «Aspertu gabe errepikatuko dut, fede-jarreraz otoitz-giroan egindako Idazteunaren irakurketa dela Jainkoak jarri digun biderik nagusienetakoa, axolagabekeriaren eta sinesteko beldurraren eraginez mendebaldeko munduak jasan dezakeen hondamendi moraletik salbatzeko. Irakurketa hori da Jainkoak proposatzen duen antidotoa... kristautasunak hirugarren milurtekoko erronka gainditzeko ezinbestekoa duen barnekotasunaren hazkunde eragiteko».<sup>21</sup>

### 3.3. *Jainkoaren Hitzak, Espiritu Santuaren ahalmenagatik, Elizaren bizitzan sartzen da eta sustatu egiten du*

Jainkoaren Hitzaren indarrak eta Espirituaren ekintzarik gabe, Elizaren jarduera guztia «alferrik arineketan egitea» baino ez litzateke izango. Gure ahaleginen eta lortutako emaitzen arteko aldea ikusita, etsipenean eror gaitezke. Baina Hitzak eta Espirituak

(21) MARTINI Kard., *Programmi pastorali diocesani 1980-1990*, Milan, Ambrosioar Zentroa, 529. or.

sustatzen dute predikua, bizkortzen liturgia, bultzatzen gaituzte karitatezko jarduerara, sustatzen dituzte bizitza kontenplalaria dararmatenak, inspiratzen dituzte teologoak; Hitzak eta Espiritua dira kristau-hezitzaileen euskarri eta katekisten adore; horiek eusten diete gure argialetxei, sostengatzen dituzte gure unibertsitateak, sendotzen politikoa sinestunak, lagun egiten diete gizarte giza-tiarragoa eraikitzen konprometituta dauden laikoak, sendotzen dituzte bizitza duinagoaren alde borrokatzen diharduten pobreak, arintzen dituzte gaixoak, gehitzen dituzte misiolarien indarrak. Indar eta adore nabarmena sumatzen dugu eginkizun ebanjelizatzaile itzel honetan. Handiago izango da oraindik indar eta adore hori, horretan dihardugunok eraberritzen eta itxaropena ematen duen Hitzean gehiago oinarritzen bagara.

### 3.4. *Hitzak Elizan gehiago sustraitzeko*

22. Egia hauez sakon konbentziturak, Kontzilioak kapitulu batean (*Dei Verbum*, 6. zk.an), Hitzak Elizan harrera hobea izatea eta fruitu gehiago ematea ziurtatuko duten eginkizun batzuk adierazten dizkigu. Ezinbestekoa da «aipatu idazkiaren gailurra»<sup>22</sup> den kapitulu hau osorik irakurtzea. Hona hemen ohar batzuk:

- «Fededunek parez pare irekia izan behar dute Eskritura Santurako sarbidea» (*Dei Verbum*, 22. zk.). Beren sarrera eta behar adinbat oharrez hornitutako itzulpen leialak izango dituzte horretarako eskura.
- Guztiei «kartsuki» dei egiten zaie, zuzenean eta «sarri-sarri irakur dezaten Eskritura Santua... Gogora bezate, Eskritura Santuaren irakurketak otoitza izan behar duela lagun... izan ere, Jainkoari hitz egiten diogu otoitz egitean, eta Berari entzuten diogu Jainkoaren hitzak irakurtzean» (*Dei Verbum*, 25. zk.).
- «Idazki Santuen ikasketak izan behar du teologia sakratuaren arima» (*Dei Verbum*, 24. zk.).

(22) KASPER Kard., a.a., 8. or.

- «Exegeta eta gainerako teologoen, indarrak gogotsu elkartuz, Elizaren Irakaspenaren begiradapean, lan egin behar dute, Eskritura Santua ikertzeko eta irakasteko» (*Dei Verbum*, 23. zk.).
- Idazteuna espirituz irakurtzea ezinbestekoa da «Hitzaren ministerioan jarduten dutenentzat (apaiz, diakono, katekista). Sarri-sarri irakurri eta arretaz ikasi nahirik, murgildu daitezela Eskritura Santuan, horietako inor, bere barnean entzun ez duela, predikari hutsal eta baliorik gabeko bilaka ez dadin» (*Dei Verbum*, 25. zk.).
- «Eliz prediku guztiak... Eskritura Santuaz janaritua eta hark gidatua egon behar du» (*Dei Verbum*, 21. zk.).
- «Ahaleginak egin behar dira, Hitzaren zerbitzari ugariak eta hobeto prestatuak izateko» (*Dei Verbum*, 23. zk.).

#### IV. JAINKOAREN HITZAREN IKASLE ETA TESTIGU

23. Elizaren bizitza osoa mugimendu bikoitzean laburbiltzen da: salbamena nork bere egin eta aldarrikatu. Salbamena nork bere egitea, Jaunaren ikasle izatea da. Aldarrikatzea, berriz, jasotako salbamenaren testigu eta iragarle izatea. Elizak bertako kide berdingabe den Andre Mariarengan aurkitzen du mugimendu bikoitz honen eredia. Jainkoaren Hitza nork bere egitea eta munduan barrena aldarrikatzea da Mariaren bizitzaren eta misioaren ardatza.

Jainkoaren Hitza nork bere egitea eta aldarrikatzea kristau guztioi dagokigu. Mugimendu bikoitz hau kristauaren, Aita Santuaren nahiz azken bataiatuaren kode genetikoan ezarria dago. Elizan ez du inork aldarrikatzaile huts edota hartzaile huts izan behar. Aldarrikatzaile oro hartzaile da aldi berean. Hori horrela ez denean, «*brontze soinulari eta ezkila tintinlari besterik*» ez da (1 Ko 13, 1). Era korrelatiboan, hartzaile oro aldarrikatzaile izatera deitua dago. Eta hala ez bada, talentu bat negoziatzeko jaso eta lurpean gorde zuen zerbitzariaren antzekoa izango da (Mt 25, 24 hur.). Denok gara ikasle eta testigu.

##### 1. Hitzaren ikasle

24. «*Jainko Jaunak hitz egiteko trebatu nau, bihotz-eroriak adore-hitzez bizkor ditza-*

*dan. Goizero dit belarria ernearazten, ikasle onak bezala entzun diezaiodan. Jainko Jaunak belarria zabaldu dit, eta nik ez diot aurka egin, ez atzera jo*» (Is 50, 4-5).

Jainkoaren Hitza *ezagutzea* eta Hitz horretan *konfiantza* izatea da ikaslearen ezagutze nagusienetako bat. Jaunak «belarria ireki dio» ikasleari, arretatsu eta sentibera bihurtu du Jainkoaren ahotsaren aurrean. Ahots hau ez da arrotza beretzat ezta bere munduarekin bateraezina ere. Sintonia, kidesuna du harekin.

Ezagutza eta konfiantza hori dohaina da. Jaunak ireki dio belarria. Baina dohain hori santuei eta bihotz-apalei dagokie berez. Asisko San Frantziskok bere garaiko predikari eta doktore ospetsu askok baino hobeto ulertu eta bere egin zuen Jainkoaren Hitza. Apalek ere aparteko kidetasuna dute, entzuten duten Hitzean jasotzen diren alderdi existentzial eta praktikoa jakin batzuk sumatzeko.

Ezagutza eta konfiantza hori Elizan, maila batean edo bestean, Hitzaren ministerioa jaso dutenei (apaiz, diakono, katekista, Erlijio-irakasleei) eskatzen zaie batez ere. Baina haiek ere, ikasle dira maisu baino lehen. Hauxe esaten zien San Agustinek bere eliztarrei prediku batean: «Zaindu egiten zaituztegu, dagokigun betekizunak horixe egi-

tea eskatzen digulako, baina [Jaunak] geu ere zeuekin batera zaindu gaitzala nahi dugu. Artzainen *antzeko* gara zuentzat, baina zuekin batera *ardi* gara Artzain haren menpean. Doktoeren *antzeko* gara maisu-aulki honetatik zuentzat, baina Maisu bakar haren menpean zuen *ikaskide* gara eskola honetan».

Profetaren *sentiberatasuna* da ikasleen beste ezaugarrietako bat. Azken batean, ikasleak, Bataioaren bitartez, Kristo profetaren izaeran parte hartzen du. Profeta, Jainkoaren Hitzak dardararazten duen norbait da. «*Zure hitzak niregana iristean, irentsi egiten nituen; horiek nituen neure poz, barru-barruko gozamen; zeuretzat sagaratua bainauzu, ene Jauna, Jainko ahalguztiduna*» (Jr 15, 16). Baina profeta ez da pozez bakarrik jartzen dardarka. Jainkoaren Hitzak aztertu egiten du eta barru-barrutik heltzen dio: «*Liluratu egin nauzu, Jauna, eta ni zure lilurapean erori; bortxatu egin nauzu eta menperatu. Barregarri gertatu naiz egun osoan, burlaka ari zaizkit denak... Pentsatu izan dut: ez dut berriro Jauna aipatuko, ez dut haren izenean hitz egingo. Baina orduan suaren antzeko zerbait sentitzen dut barruan, eta hezurretaraino erretzen nau; saiatzen naiz itotzen, baina ezin!» (Jr 20, 7-9). Ezekielek jan zuen liburuak eztiaren gustua zuen, baina gero erresumina eragin zion erraietan (ik. Ez 3, 3. 14).*

Entzulearen *otzantasuna* ere ikaslearen berariazko ezaugarria da. Hitza, eragozpen guztiak gainditu ondoren, bihotzaren erdira iristen denean, fededunak bere burua ematen dio, nahiago du Jainkoaren logika, berea baino, «*zuk hitzeman, ezitia ahorako baino gozoagoa da*» (Sal 119 [118], 103). Mendekosteko predikuan entzundako hitzek «*zirrara egin zieten, eta Pedrori eta gainerako apostoluei galdetu zieten: zer egin behar dugu, anaiok?»* (Eg 2, 37). Horra hor ikaslearen otzantasuna.

## 2. Hitzaren testigu

25. Testigu izatea kontu serioa da. Testigua ez da ideia-saltzaile hutsa. Ezta, besterik gabe, dioenaz konbentzitua bai, baina konprometitua ez dagoen norbait ere. Testigua,

bere bizitzan garrantzi handia izan duen gertaera bat bizi izan duena da. Gertaera honek pertsona hori markatu egin du, bere bizitzaren norabidea aldatu dio eta, orain, irtenbide bakarra du: berak bizi izandako hori hitzez eta egitez aldarrikatu beharra. Hitzak eta Espirituak horrelako testiguak eragiten dituzte. «Lepoa moztan uzteraino bizia emateko prest dagoen testiguari diot sinesten» (Pascal).

Guztioi dagokigun bokazio hau aitortzea, onartzea eta bizitzea hil ala biziko kontua da gure Elizaren orainerako eta gerorako. Garai hauetan, bataiatu askok galdu egin du Jainkoaren Hitzarekiko ohiko harremana; belaualdi batzuentzat arrotzak eta mitologikoak dira Hitza eta fedea. Halere, ezin dugu ahaztu, asko direla kristau zintzo eta motibatuak, era guztietako bizi-giroetan «ereinda» bizi direnak eta oso aldenduak dauden pertsona hauekin zuzeneko harremanak (eta baita kalitatezkoak ere) dituztenak. Kristau hauek ezin dute ahaztu, bataiatu izateagatik, Jesu Kristok eta haren elkarteak bidaliak direla bizi-giro horietara. Aitortzen dugu, zaila dela ingurune jakin batzuetan fedea iragartzea. Baina Jainkoaren Hitzak aparteko indarra du kontsolatzeko eta,aldi berean, aztertzeko. Hain urrun dauden pertsona hauen bizitzan badaude abaguneak; hurkotasun afektibo eta zerbitzuzkoaren eta mezu bibliko egokituaren indar elkartuak atek ireki ditzake eta hesiak hautsi ere bai. Ez da falta hau posible eta erreala dela egiaztatzen duten testigantzarik.

Hori bai, «Ebanjelioa bihotzean daraman sinestedunak, hau da, Ebanjelioa kontenplazio-gai eta otoitz bihurtu duen fededunak baino ez du erabili ahal izango Berri On hori altxor bezala ahoz aldarrikatzeko, eta eman beharra daukan ondasun saihestezin bezala bere eskuetan eramateko».<sup>23</sup>

## 3. Ikasle eta testigu Mariaren antzera

26. Inork ez du Jainkoaren Hitza Andre Mariak bezala bere egin. San Agustinek

(23) P. CHÁVEZ, Salestarren Errektore Nagusia, *Palabra y vida salesiana hoy*, Erroma 2004.

dioskunez, Andre Mariak bere gorputzean baino lehenago, bere espirituari sortu zuen Hitza. Batez ere haurtzaroko Ebanjelioan, Jainkoak Mariaren bizitzaren gainean duen egitasmoaren berri ematen dion Hitzaren aurrean, esanekotasun eta prestasun betearen erakusten du Mariak, nahiz eta Jainkoaren asmo honek hark alde aurretik zituen egitasmoak erabat aldatu. «*Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan bezala*» (Lk 1, 38). «Magnificat» deritzan kantikan, Mariak bozkariorik eta esker onerik onartu zuen bere bitartez Jesusengan gauzatuko zen Jainko leial eta errukitsuaren egitasmo salbatzailea, horrela, Hark bere herriari egindako agintzaria betetz. Jahweharen behartsuen tradizioan sartuta, Maria pozarren agertzen da Jainkoak pobree eta babesgabeak gogoan dituelako. «*Lagun etorri zaio bere herri Israeli, bere errukiaz oroiturik... ezerezak gora jaso ditu... eta ondasunez bete ditu gose zeudena*» (Lk 1, 51. 53. 54).

Haurraren jaiotzaren inguruko gertaerak zer pentsatu eta sentitu ugari dakarkioten «*gertakari guztiok gogoan hartzen eta bere barruan hausnartzen zituen*» (Lk 2, 19) Mariari. Semea hazten zihoala, hark bihotzaren begiegi begiratzen zion (ik. Lk 2, 28-38) eta zeinu guztiak, baita ulertzen ez zituenak eta mina eta harridura eragiten ziotenak ere –esate baterako, tenpluan gertatu zena– bihotzean gordetzen zituen (ik. Lk 2, 41-50).

Bere Semearen ministerioaren hasieran, «*egin Berak esango dizuena*» (Jn 2, 5) esango die Kanako zerbitzariei. Jesusen bizitza

publikoan, Hitza entzuten eta betetzen duten Jaunaren ikasleen artean dago Maria (Lk 11, 27-28).

Nekaldiaren une larria heldu zenean, Gurutzaren oinetan zegoen Maria, Jesusen bere gorputzean jasaten ziharduen martirioa hark ere bere bihotzean jasanez, «Mariarengan dena bere barruan gertatzen delako» (Isabel Trinidadekoa dohatsua), eta Jesusen hitz larriak kontu handiz jasoz: «*Emakume, horra hor zure semea..., horra hor zure ama*» (Jn 19, 26-27). Piztueraren esperientzia bizi ondoren, otoitzean iraun zuen ikasleekin Espiritu Laguntzailearen etorrera agindu zuen bere Semearen hitza noiz beteko zain (Eg 1, 14).

Laburbilduz, Mariak uko egiten dio bere logikari, eta ustekabekoa den Jainkoaren *logika* onartzen du. Jainkoaz eta Hark egindako promesaz *fidatzen da*, horixe delako, beretzat, munduko bermerik eta segurtasunik baliotsuena. Konfiantza honek Jainkoarenganako erabateko *esanekotasunera* bultzatzen du. Ez jarrera boluntaristaz, «*bihotzaren sintoniaz*» baizik, baina ez kosturik eta minik gabe. Mariak aurrera egiten du bere fedean, eta hobeto ulertzen du bere Semearen misterioa, *jaso eta hausnartu egiten dituelako haren hitzak, zeinuak eta jarduerak*. Horregatik, Mariaren sabelean gorputza hartu zuen Hitza den Jesusen ikasle eta testigu izan nahi dugunontzat eredu eta sustagarri gertatzen da, zailtasun eta estropezu artean. «Bera da Jainkoaren Hitza entzuten eta onartzen duen Elizaren fedearen arketipoa».<sup>24</sup>

## V. JARRERA EGOKIAK ETA DESEGOKIAK JAINKOAREN HITZAREN AURREAN

27. Idazteunaren izaerak berak Bibliara jarri jakin batzuekin hurbiltzea eskatzen digu. Horiek izendatu eta azalduko ditugu labur-labur. Baina askotan Jainkoaren Hitza-

ren egituratik kanpoko aurreiritziek, interesek eta arinkeriek eragotzi egiten digute hur-

(24) Gotzainen 2008ko Sinodoa, 4. proposamena.

bilketa hori. Kontu handiz identifikatu behar ditugu aipatu eragozpenak. Horrela, geure egingo dugu Kontzilioaren agindua: «[Jainkoaren Hitza] debozioz entzun, santuki gorde eta leialki azaldu» (*Dei Verbum*, 10. zk.).

## 1. Jarrera egokiak

### 1.1. Aitorpena eta entzutea

Entzuten dugun Hitza *Jainkoarena* da. Hitzera hurbiltzen garenean, haren lehentasuna aitortu behar dugu apaltasunez; hau da, ahoskatzen edo entzuten dugun edozein giza hitzen gainetik dagoela. Guk ez dugu aukeratu Hitz hori. Berak aukeratu gaitu. Berez, Jainkoaren Hitza ez dugu geuk geure egiten; Hitz hori da bere egiten gaituena: berak bezala pentsarazten eta sentiarazten digu eta koherentziaz jardunarazten. Jainkoarena da zuzendaritza. Bera da inizatiba hartzen duena. Horregatik, horrelako Hitzak berezkoak ditu *aitorpen apala eta entzute otzana*. Judduen tentazioa, Hitza batez ere lege bezala interpretatzea izan zen; grekoena, arrazoiari larregi moldatzea eta Hitzaren izaera paradokikoa ahaztea; hain zuzen, Hitzak hautsi egiten du giza logika eta Jainkoaren berezitasunean sartzen gaitu. Ederki azaltzen du Paul Claudelek gaur egungo sinestedun askoren tentazioa izan daitekeena: «Handia da katolikoek Idazteunari dioten errespetua, baina errespetu hori Hitzaren aurrean hartzen duten distantzian adierazten dute, batez ere».

### 1.2. Esker ona

28. Jainkoaren Hitza *doakoa* da. Opari erabatekoa eta merezigabea da. «Gure Jainkoa hitz egiten duen Jainkoa da», ez sasijainko mutua. Nahiz eta askotan, samintasunez, haren isiltasuna antzematen dugula uste izan, Jainkoak, askatasunez, maitasunak eraginik, harremanetan jarri nahi izan du gurekin, bere Aurpegia guri erakutsi eta bere salbamene-egitasmoaren partaide egin nahi izan gaitu. Gure *esker ona* merezi du. Berea ez da hitz magikoa; Hitzaren ondorio mesedegarriak guk ezin ditugu geure nahierara erabili; alde-rantziz, une egokia heltzen denean, gure etxea txukun eta prestatua, edota sakabana-

tua eta nahastua aurkitzen duenean, bere burua askatasunez eskaintzen duen Jainkoa da, gure barrua baketzeko eta eraberritzeko.

### 1.3. Baldintzarik gabeko onarpena

29. Jainkoaren Hitza *beharrezko* sendagaia da gure salbamenerako. Sendagai hori gabe, fededunen herria desegina geldituko litzateke eta gizadiak historiako mendietan bidea galtzeko arrisku handia izango luke. Sendagai hori gabe, gutako bakoitza behin betiko galdutako izaki izango ginatke. Gure zauriak kroniko bihurtuko lirateke. Azkenean, elkar suntsituko genuke. Samintasunak eta etsipenak bizi-poza eta itxaropena itoko lituzkete. Jainkoa zerumugan lausotuko litzaiguke. Itzelak, harrigarriak eta esanguratsuak dira Nietzscheren hitzak: Jainkoaren heriotza eta heriotza honek eragindako hotz glaziarra eta hustasun izugarria aldarrikatzen duten hitzak; baina aldarrikapen horrek, azken batean, elkarrekin bizi izandako esperientzia bat islatuko luke. Hain beharrezkoa dugun Hitzak baldintzarik gabe onartzea eskatzen digu.

### 1.4. Kontzientzia arretatsua

30. Jainkoaren Hitza *gaur egungoa* da. Ez da Jainkoak lehenaldian izandako jardueraren eta ekintzen zerrenda hutsa. Aitak solasean jarduten du, orain eta hemen, bere seme-alabekin Idazki Santuak irakurtzeko biltzen garenean. Nirekin solasean jarduten du testu sakratua irekitzen dudanean. Hitza gaur egungoa izate honek kontzientzia *arretatsua* eskatzen digu. Hitzarekin dugun harremana berarekin bat egitea da, gertaera salbatzailea. Jainkoaren Hitza ezin dugu «zeharka» irakurri, eguneroko prentsa irakurtzen den bezalatsu. Jainkoa bera da hitz egiten didana. Horrelako Hitzaren aurrean ezin gara «erdi lotan egon» edota «azalean sakontzen» aritu.

### 1.5. Konfiantza

31. Jainkoaren Hitza *eraginkorra* da: egin egiten du esaten duena. Hitza eta gertaera da. Hitz horren aurrean gure jarrera ezin daiteke «hori lehendik ere ezagutzen duen»

entzule aspertuarena izan, ezta solaskide «eskarmentatuarena» ere, Hitz honek, niregan, guregan, aldaketa-legamia sartzen duela sinesten ez duenarena, alegia. Jainkoaren Hitzera ez gara alde zuzenetik lur jota hurbilduko, *sinesbera* eta konfiantzaz beterik baizik.

### 1.6. *Mirespena eta harridura*

32. Jainkoaren Hitzak beti da berria eta *miresgarria*. Espiritu Santuak gaztetu egiten du Hitzak, denentzat edota neuretzat hots egiten den bakoitzean. Hitzak biziberritu egiten du ukitzen duena. Bizi dugun egoera desberdina da lehenengo jasotzaileek bizi izan zuten egoerarekin alderatuz; horrek «beti antzinakoa eta beti berria» egiten du Hitzak. Itxaropenez entzutea, beraz, bat dator bere izaezarekin. Hara zer eskatzen dion Benedikto XVI.ak entzulari: «Zabalik egon dadila, Jainkoaren Hitzak duen berritasunak *harridura* sor diezaion, Hitz hori ez baita inoiz zahartzen ezta agortzen ere; eta badu ahalmena gure gortasuna sendatzeko, gure aurreiritzi eta iritziekin bat ez datozen hitzak entzun ahal ditzagun». Beti berria den Hitz honen aurrean *mirespena* eskatzen zaigu.

### 1.7. *Konpromisoa*

33. Jainkoaren Hitzak *interpelatzailea* eta *dinamikoa* da. Ekintzara, betetzera, *konpromisora* bultzatzen gaitu. «*Bete ezazue mezua, eta ez entzun bakarrik, zeuen buruak engainatuz... Baina askatasuna ematen duen lege bikaina hausnartu eta horri tinko eusten diona –ez erraz ahazten duen entzule bezala, benetako betetzailerik bezala baizik–, hori zoriontsu izango da legea betez» (St 1, 22-25). «Hitzak betetzea da gordetzea» (M. Blondel).*

## 2. *Jarrera desegokiak*

34. Jarduera zintzo orok du kutsaturik gelditzeko arriskua, gizakien eskuek ukitzen dutenean. Ikus dezagun nolako arrastoez lausotu dezaketen giza eskuek Idazteuna. Arrasto horiek Jainkoaren Hitzak, beraren lehentasuna eta garrantzia aitortu ordez, geure zerbitzura erabiltzeko izan ohi dugun tentaldia gaurkotzen dute...

### 2.1. *Irakurketa fundamentalista*

Erromako Batzorde Biblikoak<sup>25</sup> testu luze batean egiten du Idazteunera hurbil-tzekoan izan daitekeen patologia honen azalpena eta balioespena. «Hauxe da irakurketa fundamentalistaren oinarria: Biblia Jainkoaren Hitz inspiratua eta akatsik gabekoa izanik, hitzez hitz, xehetasun guztiekin irakurri eta interpretatu behar dela uste izatea... Era honetako irakurketak gero eta jarraitzaile gehiago lortu du XX. mendearen bukaeran talde erlijioso eta sekten artean, baina baita katolikoen artean ere... Uko egiten dio ikerketa kritiko orori eta Bibliaren hitzez hitzeko irakurketa ezartzen du kristau-bizitzari eta salbameneri buruzko irakaspen-iturri bakar bezala. Ez da gai Gizakundearen egia bere osotasunean onartzeko, ez delako onartu nahi Jainkoaren Hitzak Jainkoaren inspirazioz bai, baina giza hizkuntzan adierazia izan denik, eta gaitasun eta aukera mugatuak zituzten giza idazleek idatzia izan denik. Beraz, Espirituak hitzez hitz diktatu izan balu bezala hartzen du gisa honetako irakurketak Bibliako testua».

### 2.2. *Historizismo kritikoa*

35. Aurreko tentaldiaren antipodetan kokatzen da Idazteunaren aditu fedegabeen jarrera. Hauek giza hitz hustzat dute Liburu Santua eta horregatik, hauen ustez, beste agerietarako erabiltzen diren azterketa-tresna berdinekin bakarrik aztertu behar da. Joera honetarantz egiteko tentazioa egiazkoa izan daiteke, baldin eta ahaztu egiten bada, Jainkoak inspiratutako eta Elizan irakurritako Hitzak bere berezitasunak dituela eta berriazko irizpideak eskatzen dituela: aitortzea, alegia, Idazteun osoaren batasuna, Kristorengana zuzendua egotea eta fedeak duen analogia.

### 2.3. *Irakurketa legitimatzaile eta murritztailea*

36. Howard Clark Kee teologo iparramerikarrak beste arrisku bat salatzen du: hain zuzen, Idazteuna, gizarteak dituen uste sendo

(25) Erromako Batzorde Biblikoa, a.i., I, F kap.

batzuk justifikatzeko erabiltzeko arriskua, ezin justifikatuak edo eztabaidagarriak badira ere uste sendo horiek; horretarako oinarri hartzen dute Hitza. Honela, Biblian krea-zioaz gozatzeko egiten zaigun gonbita (Has 1, 26-31; 104 [103] Sal; Koh 5, 18-19) kontsumismoa ontzat ematea bezala uler dezakegu. Aurrerapen ekonomikoa Jainkoaren gudanako arduraren ondorioztat har dezakegu eta horretara bakarrik mugatu. Fededunaren askatasuna mendebaldeko demokrazia konkretuarekin nahasi daiteke erraz. Kristau-salbamena osasun fisiko eta mentalarekin berdindu daiteke. «Biblia, batzuetan, emozio-oreka eta -osotasuna iristeko gidatzen da. Horrela, irizpide psikologikoen teologikoen lekua hartzen dute».<sup>26</sup>

#### 2.4. Irakurketa ideologikoa

37. Hau ere benetako arriskua da. Ideologia, batzuetan, kontserbadorea izan daiteke eta Biblia oinarritzat har dezake indarrean dagoen sistema gogor defendatzeko; baina, aldi berean, itsu eta sorgor bihurtzen da, pobreen alde eta gizarte-zapalketa eta zuzengabekeria ororen aurka Jainkoaren Hitzak behin eta berriz egiten dituen deien eta eskakizunen aurrean.

Beste batzuetan, aurrerakoia izan daiteke ideologia, baita iraultzailea ere. Ez dira hain zaharrak marxismoaren eta kristautasunaren arteko zenbait nahasketa oinarri garbirik gabe egina. Jatorrizko intuizioa zuzena da: «herriak zapalduak bizi badira, beharrezkoa da Bibliara jotzea, han borrokarako eta itxaropenerako indarra aurki dezaten. Gure bizi-egoera ez dugu ahaztu behar; aurpegi eman behar diogu eta argitu Idazteunaren argira. Jainkoaren Hitza guztiz gaurkoa da, “sortze-unean izandako gertaerek” (irteerak, Jaunen Nekaldiak eta Piztuerak) historian zehar gertaera berriak eragiteko duten gaitasunari esker batez ere».<sup>27</sup>

Honelako irakurketa konprometituak bere arriskuak ditu. Kontakizun eta testu profeti-

(26) H. CLARK Kee, Biblia y predicación, in *Comentario Bíblico Internacional*, Verbo Divino, Lizarrar 1999, 134. or.

ko batzuk aukeratzen dira eta aipagarriak diren beste batzuk alde batera uzten. Fedearen dinamikarekin bat ez datozen azterketa-tresnak erabil daitezke errealitatea aztertzeko. Arazo sozial handien presiopean, mezu sozial eta politiko askatzailea bakarrik nabarmendu daiteke, eta sentiberatasun eskasa erakutsi kristau-salbamenaren alderdi transzentalaren aurrean.

#### 2.5. Irakurketa moralista

38. Idazteuna, batez ere, gure jokamoldea bideratzera eta zehaztera zuzendutako irizpide eta arau moralen multzo bezala ulertzen eta erabiltzen denean jausten gara arrisku horretan. Irakurketa horrek ez du kontuan hartzen Biblian «ez daudela aurreikusita» era guztietako giza jokaerak. Bibliak ez dauka egoera historiko edota pertsonal bakoitzera-ko «errezeta moral» bat. Irakurketa honek ahaztu egiten du, gainera, arau moral askok aldaketak izan dituela Biblian bertan, inguruabar jakin batzuk aldatzen joan diren heinean. Bereziki, hauxe da ahazten duena: Ebanjelioak, Elizan irakurtzen denean, gehiago begiratzen diola bizimodu berri batera konbertitzeari, arau moral jakin asko errepikatzeari baino; egiten digun gonbita eta dei larria ez dela legea zorrotz betetzera, Espirituaren ahots egiaztatua onartuz era berri batean bizitzera baizik.

#### 2.6. Irakurketa espiritualista

39. «Espiritua da bizia ematen duena; gizakia berez ez da ezertarako. Nik eman dizkizuedan irakatsiak espiritu eta bizi dira» (Jn 6, 63). Irakurketa espiritualistak ez dio jaramonik egiten idazle sakratuak bere garai-ko entzuleei esan nahi izan zienari. Alde batera uzten du Jainkoaren Hitzak mundu honetako errealitateaz, pertsonaren gorputz-izaeraz edota gizarte-harremanez esaten diguna. Irakurle horientzat, Biblia esaldi espiritualen errezeta-liburua da gehienbat. Egia da «Liburu Santuetan idatzia dagoen guztia gure ikasbiderako dagoela idatzia, geure eroapenez eta Liburu Santuek ematen duten

(27) ERROMAKO BATZORDE BIBLIKOA, a.i., I, E kap.

*adoreaz itxaropenari euts diezaiogun»* (Erm 5, 4). Baina pentsamendu bibliko bikain hau osatu beharra daukagu: «*Liburu Santuetan idatzirik dagoen guztia... irakasteko, arrazoiak emateko, okerrak zuzentzeko eta biziera zuzenean hezteko baliagarria da... horrela, Jainkoaren gizakia guztiz hornitua gertatzen da, edozein eginbehar onetarako prest» (2 Tm 3, 16-17). Ez daukagu bazterrerera uzterik Jainkoaren Hitzak gure jarrera pertsonalei, sozialei eta eliztarrei buruz duen indar interpelatazailea eta kritikoa.*

Ez irakurketa «materialistak» ezta «espiritualistak» ere, ez dute jarrera egokia hartzen Jainkoaren Hitzaren aurrean. Bien erdian dago irakurketa «espiritualista».

### 2.7. Ezjakintasuna eta gogorik eza

40. Ikuspegi okerreko irakurketak hor daude, baina urri samarra da arrisku horietan erortzen den fededunen multzoa. Gehiengoak ez du Biblia ezagutzen. Puntu honetan ezjakintasuna nahiko orokorra da. Fededun asko eta asko Jainkoaren Hitzetik urrun bizi da. Normalean mezatarra joaten direnen artean ere, igandeko liturgiatic geratzen zaiena baino ez dute ezagutzen Idazteunetik.

Sinodoa prestatzeko egin zuten idazkiak eite afektiboagoa duen hitza darabil: elizta-

rren *atxikitasunik eza* Bibliari dagokionaz.<sup>28</sup> Atxikitasun ezaren jatorrian ezjakintasuna egon daiteke. Axolagabekeria erlijiosoz kutsatutako ingurumen orokorraren barnean ere koka daiteke. Edo Bibliatic oso urruti dagoen heziera izan den gizatalde zabal honen landu gabeko fedea eman dezake agertzera. Zaila da federa sortzeko lehenengo aldian dastatu eta estimatu ez den zerbait gerora baliostea.

### 2.8. Hitzaren eta bizitzaren arteko koherentziarik eza

41. Fedeak dei egiten du, batzuetan era zalapartatsuan gainera, San Ignaziok dioen bezala, baina ez du derrigortzen. Normalean, atea jotzen du bigun-bigun. «*Hara, atean nauzu deika; norbaitek nire ahotsa entzuten badu eta atea ireki, harenean sartuko naiz, eta elkarrekin afalduko dugu»* (Ap 3, 20). Bizitzak aldaketarik egiten uzten ez duenean, ahotsak gero eta interferentzia gehiago jasaten du argi entzun ahal izateko, eta entzuleak gero eta ausardia gutxiago izaten du bere jarrera aldatu eta esan ahal izateko: «*Aitarengana joango naiz»* (Lk 15, 18). Aldi batean atsekabea nagusitzen da; gero gogortu egiten da bihotza eta esklabo bihurtzen duen antzinako ohitura nagusitzen.

## VI. JAINKOAREN HITZEAN SAKONTZEKO: «LECTIO DIVINA»

42. Nola lagundu Espirituari Jainkoaren Hitza bizia dakarkigun hitza izan dadin benetan guretat? Nola egin Idazteunaren irakurketa benetan espirituala?

Lehenengo bidea Idazteuna *maiz irakurtzea* da (ik. *Dei Verbum*, 25. zk.). «Hitzaz janaritzea, Hitzaren zerbitzari izateko... zailtzarik gabe, lehentasuna da Elizarentzat milurteko berriaren hasieran».<sup>29</sup> Maiztasuna garrantzi handiko eragilea da. Normalean, li-

buru santuak maiz irakurriz jaso dezakegu horien muina eta funtsezko adiera. Gauza bera gertatzen da ikerketa zientifikoan. Parisko medikuntzan ospetsua zen Charcoten arabera, honetan zetzan haren metodoa: «Gertaerei bueltak eman hitz egiten zuten arte». Maizko irakurketaren bidez bakarrik

(28) Gotzainen 2008ko Sinodoa, *Instrumentum laboris*, 6. zk.

(29) JOAN PAULO II.a, *Novo millennio ineunte*, 40. zk.

iritsi dezakegu «jakinduriazko» ezagutza, hau da Idazteunaren esperientziazko eta berezko ezagutza, ezagutza exegetiko hutsa baino askoz biziagoa eta sustagarriagoa. Horri esker isilaraziko ditugu Jainkoaren Hitzaren aurrean izaten ditugun aurkakotasunak eta nahi ezak. «Hitzaren *iraupenak* bihurtzen du harrizko bihotza haragizko bihotz». <sup>30</sup>

43. Bigarrena, Jainkoaren Hitzaren *azterlana* da. Ezinbestekoa da jakinduriazko ezagutzak ezagutza zientifikoaren gainetik duen nagusitasuna aitortzea. Gure fededun-bizitza garatzen den gizarte-esparruan, gainbeheratu egiten da erraz jakinduriazkoa ez dena. Baina, ez dute zertan elkar baztertu beharrik; jakinduriazko ezagutza eta azterlana konbinatu egiten dira eta batak bestea sendotu egiten du. Bizi duguna formulatu beharra dugu. Formulazio horrek gure barneko esperientzia sendotu egiten du. «Bizi izandakoa, formulatutakoa baino aberatsagoa» (Husserl) da beti, baina formulazioaren euskarria behar du, apurka-apurka siluetarik gal ez dezan eta lausotu ez dadin. Hala eta guztiz ere, formulazioak «arima» behar du, Jainkoaren Hitzaz dakigunak «gure barnean durundi egin dezan» eta Hitz horrekin otoitz egin dezagun. Zoritxarrez Elizan ez da fededun asko Jainkoaren Hitzaren azterlanari denbora eta ahalgin luzea eskaini diezaiokeena. Beharrezkoak ditugu. Kontzilioak esplizituki sustatzen ditu (ik. *Dei Verbum*, 23. zk.). Baina guztiz gomendagarria da denontzat gutxieneko ezagutza biblikoa, liburu santuei egindako sarrera egokien eta orri-oinean idatzitako oharren bidez, besterik ez bada ere.

Aurreko biei estu lotutako hirugarren bide bat ere badago. Joan Paulo II.ak eta Benedikto XVI.ak biziki gomendatu izan dute. Ospatu berri den Sinodoak ere behin eta berriz nabarmendu du. Mende askotako tradizioa du Elizan. Izugarri hedatu izan da, era askotara, kontinente guztietan. «*Dei Verbum* delakoaren iradokizun praktikoentzat» (Kasper kard.) jo izan da. Fruitu nabarmenak eragiten ditu Elizaren berrikuntzan. «*Lectio divina*»

da, hots, Biblia fede-jarreraz eta otoitz-gi-roan irakurtzea. Horrexerri eskainiko diogu sail honetako gainerako zatia.

## 1. «*Lectio divina*» deritzanaren sorrera eta garapena

44. «“*Lectio divina*” Jainkoaren Hitz bezala onartutako Idazteuneko pasarte luze nahiz laburrago bat, bakarka edota elkartean, irakurtzea da. Espirituaren moztiopean garatzen da hausnarketa, otoitza eta kontenplazioa eginez». <sup>31</sup>

Elizak bere jatorrietatik irakurri izan du Liburu Santua fedezko jarreraz eta otoizlari senaz. Nahikoa da Lukasen Ebanjelioaren inguruan biltzen ziren elkarteei begiratzea hori egiaztatzeko: Bibliako testuak errespetuz hartzen baitzituzten, interpretatu, Jaunaren Pazkoaren argitan elkartean irakurri, arduradunak batzarburu zirela, eta beren bitzitarako irakaspenak bilatzen zituzten testu haietan.

Kristautasunaren lehenengo mendeetan, Eliz Guraso nagusiek (Origenesek, San Joan Krisostomok, San Basiliok, San Agustinek) «*lectio divina*» delakoaren zimenduak jarri zituzten; haiek Liburu Santuak irakurtzean izan zituzten irizpideak Erdi Aroko monasterioetan agertuko ziren gerora. Jainkoaren Hitzaren nagusitasuna, Idazki guztien batasuna, beren jakinduriazko eta espirituazko interpretazioa eta Biblia mundu greko-erromatarraren kulturaren sartzeko ardurak, Eliz Gurasoek gauzatutako eta irakatsitako benetako irakurketa sinestunaren testigantza dira. <sup>32</sup> Haiei esker identifikatzen eta gauzatzen ditugu Bibliara hurbiltzeko lau eredu: *hitzez hitzezkoak* kontrastatutako gertaerei antzematen die testuan eta finkatu egiten du testua. *Alegorikoak* testuak aditzera ematen dizkigun egia salbatzaileak jasotzen ditu. *Moralak* gure jokaera bideratzeko ematen zaizkigun arauak jasotzen ditu testuan. *Mistikoak* gizadiaren helburuaz Hitz komentatuak ager-

(30) RODRÍGUEZ CARVALLO, OFMko Ministro Nagusia, a.i., 50. or.

(31) ERROMAKO BATZORDE BIBLIKOA, a.i., III, C. 2.

(32) M. MASINI, *La Lectio divina*, BAC, Madril 2001, 356-370 orr.

tzen duen azken esanahia adierazi nahi du. Erdi Aroko monasterioetako bizitzak ondare edo herentzia aberats hau jaso zuen eta ibilbidea ezarri zuen, Jainkoaren Hitzak erakusten duen bidean zehar. Ibilbide horretako etapak dira «lectio divina» deritzanaren ardatza. Bibliaren irakurketa fede-jarreraz eta otoitz-giroan egiteko bide berri guztiak, garai hartan monjeek Hitzean sakontzeko asmatu zuten bidearen moldaketa edo osagai dira.

## 2. «Lectio divina» deritzanaren giltzak<sup>33</sup>

45. Ibilbide honetako urratsak banan-banan azaldu aurretik, haren giltzak barneratu behar ditugu. San Lukasen elkarrekin egiten zuten irakurketan ere azaltzen dira.

### 2.1. Testuak begirunez irakurtzea

Idatziak izan ziren testuinguruan testuak izan zuen jatorrizko adierara eta lehenengo hartzaileengan piztu zuen jatorrizko fede-esperientziara hurbiltzeko arretan erakusten da begirune hori. Ahalegin horrek galarazi egiten du testua manipulatzeko, esaten ez duena «esalaraz» ez diezaigun.

Begirune handiz egin beharra dago irakurketa. Horretarako, berak dioena jakin nahirik joan behar dugu testura, aurreiritzien eraginez jokatu gabe eta geure subjektibotasuna testuari ezarri gabe. Historiaren, literaturaren eta teologiaren ikuspegitik begiratu behar diogu testuari. Horrela irakurtzeko, laguntza oso estimagarria eskaintzen digute exegesiaren lanek, argi egiten baitigute testuaren esanahia bere testuinguruan ulertzeko.

### 2.2. Testura jo bizitzatik eta bizitzarako

46. Fededunak ez du Biblia batez ere bere kultura biblikoa handitzeko irakurtzen, bere bizitza ulertzeko eta argitzeko baizik. Idazteunak gertaeren zentzua ematen die agertzeri, eta gertaerak lagungarri dira Idazteunaren zentzua agertzeri eman dakigun.

(33) Ik. S. GUIJARRO, La Biblia en el centro de la pastoral y de la vida de nuestras Iglesias, in *Dei Verbum* aldizkaria, 50. zk. (1999), 111-116 orr.

Jainkoaren Hitza «atzokoa eta gaurkoa» da. Mezua zuen atzorako eta mezua du gaurkorako ere, eta biak lotuak daude.

Horixe gertatzen da, esate baterako, Emausko kontakizunean. Hauxe da bigarren kristau-belaunaldiko ikasleek egiten zuten galdera: Non aurki dezakegu gaur Jesus berpiztua? Haiek ez zuten zuzenean ezagutu. Testuaren argira, jarraitzaileek ulertu zuten, makalaldi eta zalantzak izan arren, Berpiztua ez zegoela beren bizitzako bidetik kanpo, agerian baizik Idazteunean, Eukaristian, fededun-elkartean.

### 2.3. Otoitz egiten duen eta arduraduna buru duen elkartean irakurri Jainkoaren Hitza

47. Kristau-elkartea da lekurik berezkoena Hitza entzuteko. Idazteuna batez ere eliz batzarrean hots egiteko jaso zen idatziz. Hala eta guztiz ere, Kontzilioak (*Dei Verbum*, 25. zk.) bakarkako irakurketa ere gomendatzen du. Elkartean irakurri aurretik bakarka irakurtzea onuragarri da, eta ondoren irakurtzea osagarri.

Eg 4, 23-31 pasartean esaten denez, Pedro eta Joan, Sanedrin izeneko judu-biltzarraren aurrean testigantza egin ondoren, bildua zegoen elkartera itzuli ziren eta, otoitz-giroan, Jesusek jasandako jazarpenaren (27-30 tx.) jarraipen bezala interpretatu zituzten jasandako mehatxuak denen artean (24. tx.). Artzainak eta herria han zeuden bilduak. Bertan zen Espiritua, eta askatasuna eta ausardia ematen zien Jainkoaren Hitza iragartzeko (31. tx.).

### 2.4. Jaunaren Pazkoaren argitan

48. Berpiztuarekin bat eginez izan ezik, ez da ulertzen Idazteunaren esanahi sakona. Liburu Santuak inspiratu dituen Espiritu Santuak, Kristo hil eta berpiztuaren ikuspegitik idatzarazi ditu. Biblia Pazkoaren argitan entzuten dugunean, «idatzia izan zen Espiritu beraren arabera entzuten dugu».

Eg 8, 26-39 pasartean ministro etiopiarren eta Felipe diakonoaren arteko elkarketa

kontatzen zaigu. Ezinbestekoa da Felipek Jesusen Berri Ona iragartzea, harrিতua dagoen irakurleak delako pasarte hori Jesusi buruz dela pozez uler dezan.

### 3. «Lectio divina» deritzanaren urratsak

49. Ibilbide osasungarri honi ekin aurretik, ezinbestekoa da honetaz konturatzea: Espirituak eragiten duela Liburu Santuetan Jainkoaren Hitza aurkitzea. Saia gaituzen geure barruan antzematen, hortxe baitu bere etxea. Egin diezaiogun otoitz norberaren baitako isiltasunean edota elkarteko otoitzean. Beharbada, beste pentsamendu, nahiera, oroitzapen batzuk etorriko zaizkigu; horiek sakabanatuko gaituzte eta eraso egiten digutela sentituko dugu. «Lectio» delakoari ekin aurretik, egin dezagun kanpoko isiltasuna; horrek barruko isiltasuna egiten lagunduko digu, hau da, kezkatzen gaituenetik psikikoki urrutiratzen eta «Jainkoaren terapian» sartzen lagunduko digu.

#### 3.1. Behin eta berriro irakurtzea

Lehenengo urratsa, testua *behin eta berriro irakurtzea* da. Arreta osoz eta errespetu erlijioso gorenaz egin behar da. Irakurketa honek galdera bati erantzun nahi dio: zer esan nahi izan zien Jainkoak, idazle santuaren bitartez, pasarte honen *lehenengo hartzaileei*? Erantzun egokia emateko, ezinbestekoa da testua bere testuinguruan kokatzea, bere izatasuna identifikatzea, testuak zer dioskun Jainkoaz, geure buruaz, munduaz galdetzea. Irakurketa taldean egiten bada, egoki da monitoreak aurkezpen labur eta soila egitea. Sarrera eta ohar egokiz aberastutako Biblia eduki behar dugu, gutxienez. Testura arrazoizko hurbiltze zehatz hori eginez, testua gaur egungo gure egoerara subjektibotasun handiegiz aplikatzea saihestu nahi da. Bestela, esaten ez duena esanaraziko genioke Bibliari. Testuaren jatorrizko adierak eta gaurko adierak loturik egon behar dute bata bestearekin.

#### 3.2. Meditazioa

Hurrengo urratsa *gogoeta* da, *meditazioa*. Pasarte soseguz hausnartuz egiten da gogoeta, gaur, niretzat, guretzat, duen mezua aurkitu arte. Hauxe da galdera nagusia: zer *esan nahi dit* Jainkoak niri (guri) gaurko egoeran? Jainkoaren Hitzaren eta nire (gure) bizitzaren arteko alderatzea ezartzen da. Alderatze hau ez da pragmatismo moldaeraz baten fruitua. Jainkoaren Hitza gaur egungoa bada, badu gaur eta hemen zerbait esateko. «Idazteunarekiko elkarrizketarekin batera doa, nahitaez, gaur egungo belaunaldiarekiko elkarrizketa» (Erromako Batzorde Biblikoa, 86. or.).

#### 3.3. Otoitza

Hitza horrela irakurri eta hausnartuz gero, berez dator *otoitza*. «Gogora bezate, halere, Eskritura Santuaren irakurketak otoitza izan behar duela lagun, Jainkoaren eta gizakiaren arteko elkarrizketa gauza dadin; izan ere, otoitz egitean Jainkoari hitz egiten diogu, eta Jainkoaren hitzak irakurtzean Berari entzuten diogu» (*Dei Verbum*, 25. zk.). Otoitzean, «bihotza» sartzen da bizi-bizi jokoan, Jainkoaren Hitzak ukitutako gizakiaren muina. Otoitz honen harmonikoak era askotakoak dira, otoizlarien egoeraren arabera. Hitzak nire bekatua argitzen badu, nire otoitzean bihozberitzearen eta barkamenaren grazia eskatuko dut. Nire fedea argitzen badu, nire bihotzak hauxe esango du: «Sinetsi nahi dut, Jauna! Lagundu sinesgabe honi!». Hitzaren indar eraldatzaileaz jabetu banaiz, nire otoitzean eskatu egingo dut edota norbaiten alde egingo. Hitzak, Jainkoak niregan egin duena argitu badit, «eskerrik asko» esango dut. Jainkoaren Aurpegiaren distiraren bat bederen erakusten badit, Jainkoa gurtzea aterako zait berez, «miresten duen maitasuna» baita gurtza.

#### 3.4. Kontenplazioa

Otoitzak gure espiritua girotu duenean sortzen da, neurri batean nahiz bestean, *begiespena*, *kontenplazioa*. Hausnarketa eta erreguetatik haratago, gure espiritua Jainkoari begira jartzen da eta Jainkoaren begiradaz

begiratzeko dio bere bizitzari, bere inguruari, munduari. Jainkoarengan hartzen dugu atsedena. Sagrarioaren aurrean ordu luzez egon ohi zen Arseko nekazari harengan irudikatua ikusten dugu geure burua. Arseko apaizak zertan ari zen galdetu zionean, hauxe erantzun zion nekazariak: «Nik Berari begiratzeko diot, eta Berak niri». Graziaren atmosfera da hau. Dohain berezia da kontenplazioa; baina askok bizi izan du hori uneren batean behinik behin. Ezinbestekoa da dohain hori eskatzea... eta jasotzeko prest egotea.

### 3.5. *Konpromisoa*

Paradigma honen inguruan, azaldu berri ditugun funtsezko urratsak errespetatzen eta osatzen dituen zenbait aldaketa sortu izan da Elizan. Osagai horietako bat, «operatio», ekintza da, gure bizitzarako hartzen dugun *konpromiso* praktikoa, alegia. Idatzizko Hitzetik bizitzako Hitzera igarotzea da. «Ezin gara geure otoitzaz asko fidatu, zerbait aldatzeko prest ateratzen ez bagara otoitzetik» (Sta. Teresa).

### 3.6. *Elkarrizketa*

Elkartean eginiko irakurketan sartzen den beste osagai bat parte-hartzaileen *elkarrizketa* da («collatio»). Bertan, elkarrekin irakurritako Hitzak bakoitzarengan piztu dituen bizipenak eta gogoetak adierazten dizkiote elkarri. Ez du eztabaida handietan bukatu behar. Zuhur eta egokiak dira San Basilioaren aholkuak: «Gaiari buruz jakinda hitz egin; eztabaidatzeko asmorik gabe galdetu; harrotasunik gabe erantzun; hitz egiten ari denari ez moztu; ez esku hartu handikeriaz; neurriz jokatu hitz egitean eta entzutean; lotsatu gabe ikasi; norbere interesa bilatu gabe irakatsi; beste batzuegandik ikasitakoa ez ezkatatu».<sup>34</sup>

Laburbilduz, «lectio» deritzanak Jainkoari entzuten dio bere Hitzean; «meditatio» deritzanak, Hitzak bihotzean onartzen du; «oratio» deritzanak harekin solasean jarduten du; «contemplatio» deritzana bere misterioaren jaian sartzen da; «operatio» deritzanak bizitzaren testigantza eskaintzen du».<sup>35</sup>

(34) M. MASINI, a.i., 424. or. an egindako aipamena.

(35) *Ibid.*, 433. or.

## 4. «Lectio divina» deritzanaren eraginak

50. Biblia ikasgeletatik atera da eta, akademia edo liturgia-esparrutik haratago, talde irekiagoetan, esparru herrikoiagoetan sartu da. Elizako hainbat lekutan, fede-jarreraz eta otoitz-giroan egindako Idazteunaren irakurketa aldian-aldian praktikatzen duten taldeak ugaritu izanak harritu egin gaituela aitortu behar dugu. Gure elizbarrutietan talde hauekiko harreman zuzenean antzematen ditugun lau ezaugarri azpimarratu nahi ditugu: nahiko erraz sortzen direla; elkartzeak pozgarriak direla; parte hartzea sakona dela eta luzaro irauten dutela.

Nekeak eta eszeptizismoak eraginik, asperturik egotea da pastoralgintzako eta kristau-konpromisoaren arloko lankide askoren makaltasuna. Idazteunak, ahalegin askoren eta bistako fruitu eskasen erdian bizi-adorea itzultzen dien indar eraldatzailea du. Fede-jarreraz egindako irakurketa-taldeak «esparru ekologikoak» dira giro «kutsatu» batean.

Ez da harritzekoa Kontzilioak eta ondorengo Aita Santuek halako indarrez azpimarratu izana «lectio divina» delakoa, gure orainaldi estu honetan itxaropen handia pizten baitu, iraganean hainbeste fruitu eman zuen eta zoritxarrez mende luzetan ilunduta egon zen jarduera honek. «Hitzak entzuteak, “lectio divina” delakoaren tradizio zahar eta beti baliotsuan elkar aurkitze bizia izan behar du, Bibliako testuan interpelatzen, bideratzen eta bizitza moldeatzen duen hitz bizia aurki-tzeko aukera ematen duelako».<sup>36</sup> Benedikto XVI.ak oraintsu esana du: «Ziur nago, jarduera honek, eraginkortasunez sustatzen bada, udaberri espiritual berria ekarriko diola Elizari... Ez dugu inoiz ahaztu behar, Jainkoaren Hitzak kriseilu dela gure pausoentzat eta gure biderako argi».<sup>37</sup> Itxaropenez itxaroten dugu udaberri hau Elizak nozitzen duen neguaren bihotzean.

(36) JOAN PAULO II.a, *Novo millennio ineunte*, 39. zk.

(37) BENEDIKTO XVI.a, Idazteunari buruzko Nazioarteko Elkarraldian esandako hitzak (2005-IX-16).

## VII. MEZUA KRISTAU ELKARTEARI ETA ELKARTEKIDE GUZTIEI

### 1. Mezua guztiontzat

51. Zeintzuk dira Elizak bere doktrina argi-tsutik eta Jainkoaren Hitzaren esperien-zia emankorretik atera behar dituen irakas-pen nagusiak? Nola aktibatu bere baliabi-deak Hitz hau, apurka, Elizaren bihotzera irits dadin? Kezka hauekin bildu ziren Frei-sing hirian (Alemanian), Europako Gotzai-nen Batzarren Kontseiluak deituta, Europako hogeitau herrialdetako gotzain eta adituak. Handia izan dela egiaztatu zuten, Kontzilioa izan zenetik, azterlan biblikoetan, teologian, itzulpen berrietan, liturgia barruko berri-kuntza biblikoetan, katekesian, heziketa bi-blikorako eskola eta ikastaroen arloan gerta-tu den aurrerapena. Baina, aldi berean, orain-dik Biblia Elizaren bihotzera ez dela iritsi egiaztatu zuten. Beren gogoetetan, hiru arlo nagusi bereizi zituzten jarduerarako, eta ongi asmatu zuten horretan. Luze eta zabal aritu gara horietako bati buruz: «lectio divina» de-ritzanaz, alegia. Orain, beste biak aztertuko ditugu labur.

a) Kontzilio aurreko eta osteko mugimendu biblikoak *pastoralta biblikoranzko* bi-dea ireki zuen, programa ongi landuak eratuz eta makina bat lan eginez. Baina pastoralta hori berariazko gainerako pastoraltzen arteko beste bat bezala hartu zen, gure egitarau pastoraletako beste ka-pitulu bat bailitzan.

Horra hor sortzetik bertatik izan zuen muga. Biblia ez da Elizaren zuzaitzaren beste adar bat, haren enborra eta adarre-i bizia ematen dien izerdi pizgarria baizik. Berariazko pastoralta guztiak eta ba-koitza Bibliaz busti behar ditugu. Beste era batera esanda: «pastoralta bibliko-tik» «pastorgintza Bibliaz sustatzera» igaro behar dugu.

b) Hitzak zailtasun handiak aurkituko ditu, baldin eta Elizak Hitzaren zerbitzariak egoki hezten ez baditu eta *heziketa* hori

emateko beharrezkoak diren erakundeak sortzen edota sustatzen ez baditu. Hezi-keta horrek aldatu egin beharko luke bere luzera eta ikuspuntua. Apaizei eta diako-noei ez ezik, Hitzaren zerbitzari guztiei zuzendu behar zaie. Edukiak eskual-datzeari, transmititzeari, utzi gabe, fede-jarreraz eta otoitz-giroan egindako Bi-bliaren irakurketarako gaitasuna eman behar die eta Jainkoaren Hitza maiz hausnartzera bultzatu.

Baina Jainkoaren Hitzaren janariak zapo-re desberdinak gordetzen ditu bere barnean, gure egoera eta erantzukizunen arabera. Ha-ren interpretazioa ere ez da denentzat baka-rra. «[Idazteunaren] interpretazioa nahitaez anitza izango da. Interpretazio partikular ba-ka batek ezin dezake agortu hainbat ahotse-tako sinfonia den testuaren zentzua. Saihestu egin behar da, beraz, testu baten alde baka-rreko interpretazioa» (Erromako Batzorde Biblikoa, 85. or.). Gure interpretazio guztiak, muga guztiak gaingitzen dituen Hitzera egin-dako hurbilketak baizik ez dira, Hitz hori Jainkoarena baita. Guk ikus dezakeguna bai-no «gehiago dio» Beti.

Azken zati honetan, Jainkoaren Hitza eta giza hitza den Jesu Kristok, tokian tokiko gure Elizetan, Hitzaren zerbitzura bereziki emanak dauden talde eta elkarte batzuei zu-zentzen dien mezu berezia jaso nahi dugu.

### 2. Laikoei

52. Idazteunaren zerbitzari izatea ez dagokie Hitzaren ministerioaren ardura hartu du-ten kristauei bakarrik. Bataiatu orok Hitza entzunez sustatu behar du bere fedea. «Sino-do Santuak biziki gomendatzen die fededun guztiei... sarri irakur dezatela Eskritura san-tua» (*Dei Verbum*, 25. zk.). Idazteunari da-gozkion arlo guztietan (ikerketa, azterlana, Bibliaren eskolak, fede-jarreraz egindako irakurketarako taldeak) jardun dezakete lai-

koek bataiatu izateagatik, bakoitzak ahal duen neurrian. Honelako esparruren batean parte hartzeak kristauaren konpromisoen programa barnean egon beharko luke.

Elizako kide oso zaretenez, laikook «Jainkoaren Hitza gogotsu» entzuteaz gainera, «ausardiaz hots egin» behar duzue. Familian bizi zaiten laikook, lan-munduan jarduten duzenok, munduko diasporan gizarte bizitzako arlo desberdinetan sakabanatuak zaudetenok bi gauza hauek egin behar zenuzketekete: Ebanjelioarekin bat datorren jokararen testigantza eman eta fedea esplizituki aitortu. Nahiz batak nahiz besteak makina bat aurkakotasun aurkitzen du gure garaio-tan. «Laikoen artean nabarmentzen den bekatua fedea aitortu gabe fededun izatea da, lotsagatik fedea ezkutatuz. Elizgizonen bekatuak ohikoena, behar adinako bizitasunez sinetsi gabe aitortzea izan daiteke» (R. Cantalamesa).

Laikoen mundu zabalean, azkenaldian, talde handiak sortu dira, beren espiritualtasunean Idazteunak leku nabarmena duelarik. Biblia irakurtzen dute eta gaurko fededunentzat interpretatzen. Bestela Biblia ezagutuko ez zukeen fededun askorentzat Jainkoaren Hitzera hurbiltzeko bide pribilegiatua dira. Kasu batzuetan Bibliaren irakurketa aberastu egin behar lukete. Jainkoak beren bizitarako zer esaten dien jakin nahi laudagarriagatik, ahaztu dakieke testuaren jatorrizko mezuari buruzko galdera egitea; galdera hori ezinbesteko abiapuntua da, inolako arbitrariotasun edo subjektibotasunik gabe, testu horrek niri eta guri gaur egun zer esaten digun jakiteko. Elizak, Idazteunaren kanoa erabakitzean, bertan jasotako jatorrizko fede-esperientzia hau eredugarritzat eta fedearen sustatzailatzat aitortu zuen. Horregatik, horrexek izan behar du gure abiapuntua, bertan ainguraturik geratu behar ez dugun arren. «Bibliako testuen asmoarekin leial jokatuko badugu, beraren formulazioaren bihotzean adierazten duen fede-errealitatea aurkitu behar dugu eta fede-esperientzia hau gure munduko fededun esperientziari lotu».<sup>38</sup>

(38) ERROMAKO BATZORDE BIBLIKOA, a.i., 1993, 90. or.

Esana dugu badirela helburu nagusitzat fede-jarreraz eta otoitz-giroan egindako Bibliaren irakurketa sustatzea duten laikoen mugimendu eta talde desberdinak. Elizako hondartza zabala bustitzen eta freskatzen duen eta, zorionez, lekuko gure Elizetako kostaldea ere ureztatzen duen olatu hau iritsiko al da, era berean, bikote gazteengana eta gizartearen eraikuntzan konprometituri- kauden kristauengana!

### 2.1. *Katekistei eta Erljio-irakasleei*

53. Zuen «katekista» izenaren etimologia oso esanguratsua da. Katekizatzek zerbaiten «oihartzun izatea» esan nahi du. Guri dago- kigunez, Jainkoaren Hitzaren oihartzun izate- a.

Haur eta gaztetxoek katekistok misio ne- ketsu bezain garrantzitsua duzue gaur egun. Saio-orduak askotan desegokiak izateak, lo- kalen baldintzek, haurren urduritasunak eta gazteen itxurazko arduragabekeriak zuen pa- zientzia eta, batzuetan, zuen fedea ere pro- ban jartzen dute. Beti ez zaizue erraza egiten Jainkoaren Hitzaren indarrean benetan sines- tea. Nahiz eta, aldi berean, egia izan, senti- bilitate erlijiosoa adierazten duen edozein zeinuk, Jainkoaren Hitzak «ukitu» egin di- tuela erakusten duen edozein zeinuk, zuen gogo- a freskatzen duela eta poztasun izugarria eragiten dizuela.

Helduen katekesi-arduradunen zailtasu- nak eta atsegintasunak beste era batekoak dira. Konpromisoa eskatzen duen ibilbide lu- zeak askotan erakargarriak ez badira ere, batzuetan gurasoei zuzentzen zaizkien sakra- mentuen prestaketarako (sendotza, ezkontza, penitentzia, eukaristiarako) katekesi-saioek ez dute halako zailtasunik izaten eta aukera ederra dira parte-hartzaile askoren fedea eguneratzeko.

Gaur egun katekesirako ditugun materia- lek eta lagungarriek askoz gehiago aipatzen dituzte Liburu Santuak garai batekoek baino. Halere, dirudienez, Bibliaren erabilera eta Jainkoaren Hitza ezagutu eta nork bere egi- tea ez dira oraindik beharrezko mailara hel- du katekistengan. Horixe egiaztatzen du

Hego Europako herrialdeetan egindako inkesta batek. Katekista askok nahi zenukete formazio bibliko handiagoa izan, katekesi-ibilbideetan dabiltzanei Idazteuna baloratzten eta entzuten lagundu ahal izateko. Zerbitzu hau zor dizuegu eta arretaz betetzen saiatuko gara. Honela, Idazteuna eta zuen ikasleen giza eta kristau-esperientzia uztartuko dituzue eta beren fedea aitortzeko, ospatzeko eta bizitzara eramateko lehenengo urratsak ematen lagunduko diezue.

Erljio-irakasleok Eskola Publikoan ez duzue beti giro egokirik aurkitzen zuen Gotzainarengandik jasotako misioa gauzatzeko. Jesusen Elizaren presentzia zarete eskola-esparruan. Haren Hitzaren, bizitzaren, Heriotzaren eta Piztueraren testigu zarete. Kezkatuak zaudete, gu gauden bezala, gaur bereziki zalantzan jartzen den Erljioari buruzko eskolen orainaz eta geroaz. Ikasleen kopuruak behera egiteak ikaragarri sufriarazten dizue. Ageriko eta berehalako fruituak ez dira itxaropentsuegiak. Izan konfiantza egiten ari zareten horretan. Iraun zuen Artzainekiko lotura estuan. Prestatu gogoz zeuen burua. Idazteuna izan dadila zuen espiritualtasunaren eta irakaskuntzaren ardatz eta arau. Ikas dezatela zuen ikasleek Idazteuna ezagutzen, baloratzten eta erabiltzen.

## 2.2. *Liturgian Hitzaren irakurle direnei*

54. Eskuzabaltasunez eskaintzen duzue bazuetan ahalegin handia eskatzen duen zerbitzu hori. Garrantzitsua da liturgian gauzatzuten duzuen jardueraren adiera ulertzea. Zuen ahotsaren bitartez, zuen ahotsean azaltzen den Jainkoaren beraren ahotsak durundi egiten du. Zuen ahotsa haren zerbitzura jartzen duzue. Ezin zarete gorputza ematen diozuen Hitzaren eramaile huts izan. Hitzak ukitu egin behar zaituzte. Zuen egitekoari dagokio Hitza aurretik entzutea eta hark interpela zaitzaten uztea. Ahal den lekuetan, gauza ona izango litzateke, hurrengo igandean hots egitekoak diren testuak fede-jarreraz entzuteko irakurleen taldea eratzea.

Irakurtokian testua irakurri ez ezik, oihukatu egiten duzue eta horrek tonu egokia eskatzen du, halako patxada eta handitasun neurritsua.

## 2.3. *Apaizik gabeko elizkizunak zuzentzen dituzuenoi*

55. Zuek hots egindako Hitzaren eta Eukaristian gure Jauna ematearen inguruan biltzen da igandero Eliza hainbat lekutan, urrutikoetan batez ere. Zuen bitartez heltzen da, elizkizunean buru egoterik ez duen apaizaren homilia ere. Ordainezina da zuek gauzatzuten duzuen ministerioa. Elizak zuen ardurapean uzten du jaso duen gauzarik handiena: Jainkoaren Hitza eta Jaunaren Gorputza.

Gauzatzuten duzuen ministerioak Hitzarekiko kidetasun berezia eskatzen dizue. Idazteuna ikasiz eta fede-jarreraz irakurketa egiteko talderen batean parte hartuz landuko duzue. Lekuko gure Elizek beharrezko duzuen heziketa eta motibazioa eskainiko dizute aurrerantzean ere.

Ministerio honek, gainera, zerbitzatzuten duzuen elkartearentzat eredarri eta sustatzaile izango den kristau-bizitza eskatzen dizue. Ministerio hori gauzatzekoan, egin beti leialki jaramon Elizak emandako arauari. Jakin badakizue, azken batean, igandea ospatzeko erarik osoena, fededunentzat, jai-otorduan parte hartzeaz gainera, Eukaristia-ko Oparian parte hartzea dela. Zuzentzen dituzuten ospakizunek beren barnean daramate zuek batzarrean ahalegin bereziz sustatu behar duzuen «Eukaristiarekiko gogo bizia».

## 2.4. *Fede-jarreraz Hitzaren irakurketa egiteko talde-buruei*

56. Hitzaren inguruan egindako elkarketa eta bileretan zuen taldekoengan eta zuengan gertatu den bihozberitzearen eta kristau-berrikuntzaren zuzeneko testigu zarete. Pedrok esandako honen egiaren esperientzia duzue: «*Izan ere, berriro jaio zarete, eta ez hazi hilkorretik, hilezkorretik baizik, bizia den eta betiko dirauen Jainkoaren hitzetik*» (1 P 1, 23).

Zuen misioa arretaz hartu beharrekoa da. Alde batetik, nahasmendua ekar dezaketen zailtasunak desegitea eta ilunen edota harri-garrien gerta dakizkien puntuak argitzea dagozkizue. Beste alde batetik, parte-hartzaileek Jainkoaren Hitzarekin bat-egite *zuzena* ahalbideratu behar duzue. Hitza da, bere horretan, gure espirituaren ehunak birsortzen dituen oxigenoa. Betekizun bikoitz honen arabera, neurritasunez jokatu behar duzue zeuen azalpenetan, eta kideen arteko eztabaida bihur daitezkeen gogoetak eragotzi. Ez diote mesederik egiten ez Hitzarekiko berezko harremanari, ez denen arteko elkartasunari.

Zuzendu bilerak bileraren ibilbideko urrats guztiak ematen lagunduz. Zaindu tokiaren girotzea, dei egin Espirituari, Berak ematen baitio bizia elkarrekin landuko duzuen Hitzari. Saia zaitezte lekua soiltasunez apaintzen. Leku nabarmenean jarritako Hitza izango da batzarraren bihotza. Gainerakook, inolako lehentasunik gabe, haren inguruan eseriko gara.

Aparteko laguntasuna behar duzue eta eskatzen, zeuen heziketa biblikoa osatzen joateko, zeuen taldearen gorabeheren berri emateko eta, Arduradun nagusiarekin eta gainerako talde-arduradunekin elkarrizketan, zeuen eginkizuna betetzean azaltzen zaizkizuen arazoak eta galderak argitzen joateko.

Osasungarria litzateke zuentzat eta taldearentzat, bakoitzak, egunero, bakarkako «lectio divina» delakoari tarte bat eskaintzera ohitzea.

### 2.5. *Gurasoei*

57. Lotura sendoak dituen familia fededuna esparru guztiz egokia da gurasook Idazteuna elkarrekin irakurketan lehenengo urratsak eman ditzazuen eta seme-alabei horretan lagun diezaiezuen, batez ere adin harberagoetan. Familia-egiturara egoki moldaturik, bide bikaina izan daiteke gurasoen fedea bizitzari gehiago lotzeko, gurasoak fede horren eskualdatze edo transmisioan inplikatzeko eta seme-alabek beren aita-amen fededun esperientziaren taupada bizia jasotzearen bizikizun berdingabea «zuzen-zuzenean»

bizi dezaten. Ez ote luke norabide honetatik joan behar gure Elizetan sakon sustraitzen ari den parrokiako famili katekesiaren esperientzia itzaropentsuak?

### 2.6. *Gizarte-komunikabideetako fededunei*

58. «Gaur egun areopagorik nagusia giza-dia bateratzen ari den komunikazioaren mundua da... Hedadura zabaleko komunikabideen erabilera funtsezko bihurtu da ebanjelizatze eta katekesirako... Eliza errudun sentituko litzateke bere Jaunaren aurrean, indar handiko komunikabide horiek erabiliko ez balitu... Horiei esker, jendetza zabalari hitz egin diezaieke». Beharrezko da horretarako mezua «kultura berrian txertatzen jakitea... hizkuntza berriekin, teknika berriekin eta jarrera psikologiko berriekin».<sup>39</sup> Jainkoaren Hitzak dakarren mezua zabaltzeko, Elizak berariazko bere gizarte-komunikabideak eskuratzeko eskubide osoa du, baina bere programazioa Jainkoaren Hitzarekin bat etortzea eta programazio horrek Hitzari sinisgarritasunik ez kentzea ziurtatuz. Baina komunikabide ofizial nahiz hiritarretan lan egiten duten gizon eta emakume ugariak koherentzia hori berori ahalbideratu behar dute, audientzia-kuoten nahiz beren ardura-dunek jarritako arau ideologikoen gainetik.

Beren programetako batzuetan Jainkoaren Hitza azaltzea ez da inolako neurritz gaineko pribilegioa. Komunikabide horiek, normalean, ez dira eskuzabalegiak saio erlijiosoak eskaintzekoan. Aitzitik, komunikabide publiko eta pribatu batzuk ezaugarri hau dute: beren programazioan fedea desitxuratzen edota barrengarri uzten duten saioak onartzea eta kontrako zeinuko eliz albisteen, egiazkoen nahiz balizkoen, irakurketa selektiboa egiten duten saioak onartzea. Ez dugu aparteko mesederik eskatzen. Gure gizartearen izaera hiritar eta anitza aitortzen dugu. Fededun-elkarteak merezi duen errespetua besterik ez dugu eskatzen. Erantzukizun-maila desberdinetatik, komunikabideetan dihardu-

(39) KLEROARENTZAKO KONGREGAZIOA, *Katekesirako Argibide Nagusiak*, 1997.

zuen kristau profesionaloi zuen Gotzainok dei egiten dizuegu zeuon buruari galdegin diezaiozuen ea zer egin dezakezuen Ebanjelioarekin bat datorren humanismoa izan dadin zuen saioen inspirazioa. Eta gure elizbarrutiek adorea eman beharko liekete laikoei prentsako, irratiko nahiz telebistako saioetan parte har dezaten, adituak diren gaietan, Berri Onarekin bat datozen irizpideak aurkeztuz. Fededunen larregizko lotsaren eraginez, saio askotan, beren sinesgabetasunaren aitorten publikoa egiten duten pertsonak bakarrik azaltzen dira eta, batzuetan, jarrera oldarkorra dute halakoek Elizaren jarreraren eta fedearen beraren aurrean.

### 3. Exegesiaren eta Teologiaren irakasleei

59. Kontzilioan (*Dei Verbum*, 24. zk.) jasotzen denez, «Idazki Santuen ikasketa teologia santuaren arima bezala da», hau da, bere oinarri inspiratzaile eta erregulatzailea. «Horretan aurkitzen du sendotasuna eta etengabe gaztetzen da» (*ibid.*), ondorioz, dei egiten dizue exegeta eta teologo zaretenoi, Elizaren Irakaskuntzaren begiradapean, indarrak gogotsu elkartzuz lan egin dezazuen egoiki diren baliabideekin Idazteuna ikertzen eta azaltzen, Jainkoaren Herriari Eskrituraren janaria eskaintzeko gai izango diren Hitzaren ministroak ugaritu daitezzen (ik. *Dei Verbum*, 23. zk.).

Argibide hauek Elizaren berrikuntzan eta fededunen suspertzean duzuen misioaren garrantzia hobeto ulertzen laguntzen digute. Denok (baita zuek ere), maisu baino lehena-go ikasle garenez, biziki dei egiten dizuegu Jainkoaren Hitza, zuen saio akademikoetan eta zuen idazkietan leialtasunez azaldu aurretik, maiz entzun dezazuen otzantasunez. Zorionez, iraganeko kontuak dira Idazteuna, teologoen, doktrina-baieztapenak oinarritze aldera, Bibliako esaerak ateratzeko harrobi hustzat zuteneko kontu haiek. Gaur egun toki garrantzitsuagoa du eginkizun teologikoan eta akademikoan. Zuen gogoeta teologikoaren jatorrian, ibilbidean eta bukaeran dago Idazteuna. Zuen azalpenak, Eliz Gura-

so nagusienak bezala, Idazteunaz bustirik egon daitezela beti.

Kontzilioak beharrezkotzat jotzen du zuen lana «Eskritura Santuaren gero eta ulertze sakonagoa lortzeko» (*Dei Verbum*, 23. zk.) eta haren mezua gaur egungo koordinada mental, kultural eta sozialetan onargarri egiteko. Aurrerantzean ere, eskain iezaguzue zerbitzu hau gero eta arreta handiagoz. Horrela, kristau askoren barruan, sines-tun-alderdiaren eta gure inguruan hedatua dagoen pentsamolde eta sentsibilitatearen artean, «zentzu kosmikoaren eta zentzu “kristikoaren” artean» (Teilhard de Chardin) dagoen zatiketa saihesten lagunduko diguzue. Zuei esker, zatiketa, federako sustagarri eta nagusi den pentsamolderako interpelatzaile izango den tentsio dialektiko sano bihurtu daiteke.

Kontu handiz egin beharreko misio honetan, Idazteunaren egiazko interpretazioa eta fedearen araztasuna bermatzen duten Elizaren Irakaspenek, zuen bidezko bilaketak moztu ez ezik, horiei adore emateko eta, beharrezkoa denean, horiek bideratzeko dei egiten dute. Zuek, zeuen ikerketa eta gogoez, gure fedearen edukiak neurritasunez formulatzen laguntzen diozue Eliz Irakaskuntzari. Eliz Irakaskuntzak eliz benetakotasunaren bermea eskaintzen dizue.

### 4. Erlijosoei

60. Erlijosoei «eduki bezate, beste ezer baino lehen, eskuetan Idazteuna, liburu santuak irakurri eta hausnartzuz, Jesu Kristoren ezaguera bikaina iritsi ahal dezaten» (*Perfectae caritatis*, 6. zk.). Hitza entzutea ezinbesteko baldintza da Jainkoaren esperientzia izateko, elkarte-izatera iristeko, leialtasunean irauteko eta sen apostolikoari eusteko.<sup>40</sup> Hitza maiz entzuteak naturaz gaindikoa den halako sena ematen digu, fede-begirada, eta hori beharrezko dugu bizitzak, apurka, zentzua gal ez dezan, anai-arreben aurpegia ezkuta ez dakigun horiengan Kristoren aur-

(40) Ik. P. CHÁVEZ, Salestaren Errektore Nagusia, a.i., 8-20 orr.

pegia ikusi ahal ez izateraino, historiako gertaerak lausotu ez daitezzen eta itxaropenari eta misio apostolikoari eta karitatezkoari euts diezaiogun aktibismo sakabanatuan erori gabe.

Begira diezaiegun, batez ere, monasterioetako eta klausurako elkarteei. Monasterioetan mamitu zen «lectio divina» delakoa. Horietan sakontasunez gauzatzen da. Murgil zaitezte Idazteunaren ezagutzan. Eskainiez zaiozue etengabeko heziketako saioretan toki zabala. Fede-jarreraz eta otoitz-giroan egingadako Irakurketa emankorra lortzen lagunduko dizue. Irakatsi horren hastapenak zuengana benetako jakin-min ebanjelikoz hurbil daitezenei.

Fede-hezkuntzan diharduten Kongregazioei ere eskaini nahi diegu geure arreta. Joan Paulo II.ak (*Vita consecrata*, 4. zk.) «batez ere Idazteunaren bihotza diren Ebanjelioetara» zuzentzen du fede-hezitzaile bezala duzuen egitekoa eta dei egiten dizue «zeuen karismaren arabera otoitz-eskolak, espiritualtasun-eskolak eta otoitz-giroan egingadako Idazteunaren irakurketarako eskolak susta ditzazuen».

Haur, gaztetxo eta gazte asko duzue fisikoki zeuogandik hurbil. Saminez eta kezka betetzen zaituzte zuen fede-proposamenetik eta zuen balore-eskalatik beren burua psikikoki urruti sentitzen dutela ikusteak. Ez al liteke Biblia benetako elkargunea izan, batzuentzat gutxienez? Horixe uste du ondorengo hitzok zuzentzen dizkien Benedikto XVI.ak: «Beti da oso garrantzitsua Biblia bakarka irakurtzea... baina, era berean, garrantzitsua da bide berean doazen lagunekin batera irakurtzea».<sup>41</sup> Dei egiten die «Bibliaren ezagutza sakona izatera, Biblia eskura edukitzera... jarraitu beharreko bidea erakutsiko dion iparrorrazaren antzekoa izan dadin».<sup>42</sup> Beste kultura batzuek erakartzen

(41) BENEDIKTO XVI.a, Elkarraldia erromatar gazteekin (2006-IX-6), in *L'Osservatore Romano* espainiar edizioa (2006-IX-14), 3. or.

(42) BENEDIKTO XVI.a, Gazteriaren Munduko Jardunaldirako Mezua (2006-II-22), in *L'Osservatore Romano* espainiar edizioa (2006-III-3), 3. or.

dituzten gazteak eta, adituek diotenez, hain galduta sentitzen direnak ezen beren bizitzan orientatzeko erreferentzia-puntuak bilatzen dituztenak (baita bilatzen duten hori arbuia-tuz ere), ez ote dira ongi sentituko, fedejarreraz eta otoitz-giroan Idazteunaren irakurketa, ongi lagunduta, eginez?

Gure Eskola Katolikoak urrats esanguratsuak eman ditu azken urteetan, bere kalitate pedagogikoa eta teknikoa hobetzeari dago-kionez. Biziki ahalegintzen ari zarete kristau-fedea eskaintzeko eta transmititzeko eta, horrela, zeuen bokazio ebanjelizatzaile ukaezina betetzeko. Askotan adierazten diguzue zeuen samina, misio honi eskainitako baliabideak hain handiak izanik ere, ikasleekin eta beren familiarekin lortutako emaitzen urritasuna handia dela ikusirik. Beharbada, zue-tariko batzuek, zeuen fededun-eskaintzaren hedadura eta sakontasuna txikiagotzeko tentaldia izan dezakezue. Ez dadila inor inoiz tentaldi horretan erori. Hobetu «bidea», baina ez ahaztu «edukiaz». Izan zeuek zeuen fedearen iragarpen, zeuen testigantza otoizlari, abegitsu, eskuzabalaren bitartez. Hezi irakasle laikoak fedean eta hezkuntzarako bokazioan. Erabili Biblia sakontasunez eta pedagogikoki. Ezagut dezatela Biblia zuen ikasleek eta haien gurasoek. Egin otoitz beraien artean, Biblia eskuetan duzuela. Zuek zarete, haur eta gaztetxoen aldeko eskaintzagatik eta gurasoekiko harremanagatik, eliz elkarteak zaindu behar dituen zubietako bat. Gaur egun inoiz baino beharrezkoagoa da Kristau Eskola. Gure estimua eta gure babes adeitsua beharrezkoagoa eta mereziagoa duzue gure ohar kritikoak baino.

## 5. Apaizei eta diakonoei

61. Zuentzat ere, Berri Ona iragarri beharra poztasun eta gurutze da. Adorea galtzen duzue, zeuen bizia eskaintzerainoko garrantzia ematen diozuen zerbaiten aurrean, baitaiatu askok erakusten duen axolagabekeria arduragabea ikusirik. Bat egiten dugu zuen poztasun eta desengainu pastoralekin.

*Pastores dabo vobis*, 26. zk. pasarteko hitz ederrekin adoretu nahi zaituztegu: «Apaiza, gauza guztien gainetik, Jainkoaren Hitzaren zerbitzari da... Horregatik, lehenengoan izan behar du Hitz hau ezagutzen eta Hitzean konfiantza izaten. Bihotz otzan eta otoizlariak hurbildu behar du Hitzera... Hitzaren lehenengo fededuna izan behar du... eta etengabe ebanjelizatua izan behar duela sentitu».

Pertsona eta gizarte-bizitzako arlo askorekiko harremanerako zubiak zuentzat gero eta estuago eta urriago izateak atsekabetu egiten zaituzte. Batzuetan, bidegabea edota, gutxienez, gehiegizkoa den erruduntasun-sentipenaz bizi duzue ardura hau. Badituzue zeuen inguruan oraindik, fedea bizi duten eta Hitza onartzeko sentibera diren eliztarrak. Inguruan izango dituzue, orobat, gizarteak beharrezko baliabideak ematen dizkien arren, bere denbora, maitasuna eta konpainia ematen ez dien beste pertsona batzuk. Jesusen garai honetan aipatzen digun eginbeharrerako bat honako hau da: gizon eta emakume ezinduei edota adinagatik, gaixotasunagatik nahiz bakardadeagatik mugatuak daudenei hurbiltasun gizatiarra eta ebanjelikoa eskaintzea da. Horien ondoan egotea, baita isilean ere, «[Aita Jainkoaren] isiltasunetik datorren eta isiltasunean entzun behar den Hitzaren»<sup>43</sup> testigu izateko modua da.

Ez etsi, halere, eta jarraitu zubiak erakitzen. Ez hain urrun, *pobreak* aurkituko dituzue. «Jainkoaren Hitzak, prestasunez onarturik, karitatea eta zuzentasuna oparo sortzen du Elizan denontzat, batez ere pobreentzat. Ogiak gainera, bizia dakarten hitzak behar dituzten pobreak dira, hain zuzen ere, Ebanjelioaren iragarpena jasotzeko eskubidea duten lehenengoak... Ez dira hartzaile hutsak. Artzainak beraiengandik ikasi beharrean dira, gidatu egin behar dituzte beren fedean eta beren historiako protagonista izatera bultzatu. Karitatearen zerbitzuaz arduratzen diren diakonoek erantzukizun berezia dute

(43) GURUTZEKO SAN JOAN, *Dichos de luz y amor*, 99. or.

arlotan. Sinodoak beren ministerioan adoretzen ditu».<sup>44</sup>

*Etorkinak* ere ez dira hain urrun egongo. Asko eta asko, Jainkoaren eta Erlijioaren zentzu bizi, fresko eta sakonaz heldu da gure herrira. Gure gizarteko hotsasun erlijiosoa eta gure elizetan sumatzen den goibeltasunaren eraginez, fedea indargabetu eta makaldu dakieke. Dei egin diezaiegun gure fedetaldetan eta parroki bizitzan parte har dezaten.

Azkenik, «puntu bero» bat komentatu nahi dugu zuekin, liturgian osagai garrantzitsua eta predikarien gurutzeta den puntua.

Alde batetik homilia, Hitzaren Liturgiari loturik, liturgia honen gorengo unea da. Otoitzean prestatu behar dugu geure burua, Hitza uste osoz eta pasioz esateko. Hiru galdareri eman beharreko erantzunak aldarrikatzen ditu: Zer diote hots egindako irakurgaiek? Zer esaten didate niri? Zer esan behar diot egoera jakin bat bizi duen elkarteari? Homiliak fedea sendotu behar du, bihozberritzera deitu eta Eukaristiako Misterioa ospatzeko prestatu.

Beste alde batetik, homiliak irauten duen minutuak amaiezin bihurtzen dira entzule askorentzat. «Beren gauza eta kontuekin» datoz Eukaristiara. Apaizaren hitzak ez du entzule gehienen arreta erakartzen ezta jakin-mina pizten ere. Denbora labur geratzen zaio irakurgaiak azaltzeko eta bizitzarako aplikazioak egiteko. Batzuek eskertzen digute homiliak «ukitu dituelako». Askoz gehiago da arretarik jarri gabe entzun duena.

Neurri txikiago batean bada ere, hau bera gertatzen da ongi prestatutako eta azaldutako homiliekin ere. Homiliaren artea zaila da. Apaiz edo diakono guztiek ez dute entzuleen arreta erakartzeko karismarik. Hitza beti ez da argi eta garbi entzuten gure elizetan. Baina, zintzo jokatu nahi badugu, batzuek zintzotasunez galdetu behar diogu geure buruari, zein «tratamendu» eman diegun testuei, zenbat otoitz egin dugun testu horiekin, zenbateraino hausnartu dugun elizan bilduta-

(44) Gotzainen 2008ko Sinodoa, 11. proposamena.

koen egoerari buruz. Hona hemen, aurrez aurre, homiliaren argia eta gurutzeta.

«Jainkoaren Hitzik gabe, ez zarete inor Elizan; Jainkoaren Hitzik gabe, ez duzue zer esanik Elizan. Jainkoaren Hitzik gabe, zuen ahalegin guztiek ez dute ezertarako balio».<sup>45</sup>

## 6. Geuri, gotzainoi

62. Kontzilioak oroitarazten digu, beharrezko zerbitzuak eskaini behar dizkiogula elkarte osoari, elkarteak liburu santuak, bereziki Itun Berria eta, batez ere, Ebanjelioak, erabil ditzan, «Elizaren seme-alabak modu seguru eta onuragarrian Eskritura Santuaren erabilerara ohitu eta haren espirituaz ase daitezen» (*Dei Verbum*, 25. zk.).

*Lumen gentium*, 21. testuak hau dio: «[Goztainen] eginkizun nagusien artean, Ebanjelioa hots egin beharra nabarmentzen da (“eminet”)». Itun Berriko liburu guztiek aparteko lehentasuna egotzen diote Hitzaren ministerioari.<sup>46</sup> Ikuspuntu honetatik uler dezakegu San Pauloren adierazpena, Jainkoak deitua «*Jainkoaren Berri Ona hots egiteko*» (Erm 1, 1). «*Berri Ona hots egiten dudala eta ezin naiz harrotu; ezinbesteko egin behartzat jotzen baitut hori, eta errukarria ni, Berri Ona hots egingo ez banu!*» (1 Ko 9, 16).

Iragartze hori ez da betekizun edo obligazio hutsa, ezta hurrik eman ere, ez Paulorentzat ez guretzat. Pozgarria da Jesus iragartzea eta iragarpenaren oihartzuna zuengan jasotzea. Baina ez da erraza garai haue-tan eta lur honetan Ebanjelioaren iragarpena. Guregan ere badute eragina axolarik ezak, askok eta askok egiten dituen interpretazio

murriztaile eta okerre-k, geure zehaztugabetasun-ek edota adierazpen desegokiek. Halako askatasun-, adore- eta bereizketa-plus bat behar dugu, une bakoitzean esan behar dugun guztia eta hura baizik ez esateko. Ezin dugu isilean gorde biktimen eta bidegabeke-riaz sufritzen duten guztien defentsa egiten duen Ebanjelioa. Ezin dugu errukia erakusten duen Ebanjelioa geure mezuaren erdigu-netik atera. Iragarpenaren eta Jesusen jardue-raren muin nagusienetako bati saldukeria egingo genioke, Ebanjelioa baztertuko bage-nu edota errugabeei beste inori zuzenduko ez bagenio. Bakea dakarren Ebanjelioa hots egiten eta bakea ahaleginez prestatzen jarraitu nahi dugu, bake zuzen eta egonkorrerako baldintzak sortzen lagunduz. Itxaropena pizten duen Ebanjelioa hots egin behar dugu, etsipenerako arrazoiak dituen gizartean eta «arimarentzat gehigarria» behar duen Elizan. Sortzen denetik berezko heriotza arte, giza bizia ezin bortxatuzkoa dela iragarri behar dugu, bizi horren balio ukiezinaren aurrean sentiberatasun handirik erakusten ez duen gi-zarte honetan. Eta, batez ere, Jesu Kristoren Heriotza eta Piztuera ausarki iragarri behar dugu, mezu hauen guztien ardatz eta orpo denez.

Zuek bezala, hezur-mamizko gizakiak gara. Jakin badakigu Berri Onaren iragarpe-na estu lotua dagoela gurutzeari, eta geuk ere izaten dugu hori saihesteko tentaziorik, me-zua urardotuz edota batzuen eta besteen sentsibilitatea sumintzen duten zati haiek gehiegi leunduz. Bere ministerioan sendotu zezatela eskatzen zien Paulok elkarteetako kristauei. Guk ere behin eta berriro eskatzen dizuegu zerbitzu hori.gu zerbitzu hori.

(45) E. BIANCHI, *A los presbíteros*, Sígueme, Salamanca 2008, 28. or.

(46) Ik. J. DELORME, *El Ministerio y los ministerios en el N.T.*, Cristiandad, Madril 1975, 284. or.

## BUKAERA

63. Gainean dugu, eliztar maiteok, Garizuma. Sakontasunez entzundako Jainkoaren Hitzak indarra emango digu bizitzan izan ditzakegun zorigaizto eta probei Jaunaren espiritu beraz aurre egiteko. Bihozberritu beharra handituko du Hitzak guregan, eta jarrera horrek Elizaren araudiaren arabera ospatutako Penitentziaren sakramentura zuzenduko gaitu. Hitzak biziago bihurtuko ditu Garizumako gure Eukaristiak. Hark inspiraturik, hobeki egingo dugu otoitz, neurritsua goak izango gara eta eskuzabaltasun handiagoz erdibanatuko, konpartituko, dugu.

Osasunaren arloan, ebakuntza baten arrakasta prestakuntza egokiaren menpe dago, neurri handi batean. Halaber, Aste Santuak guregan utziko duen eragin salbatzailea handiagoa izango da, baldin eta sei asteotan Jainkoaren Hitzaren deia, Barkamenaren sakramentuaren bidez adiskidetzea eta Eukaristiak gu biltzea onartzen badugu. Horrela,

pazko-poztasuna sakonagoa eta benetakoa-  
goa izango da.

Bukatzeko, Jesu Kristori, Jainkoaren Hitzari, hau eskatzen diogu: XII. mendeko lekaiame baten testu eder honekin bat egin ahal izan dezazuela. «Senideok: ikasi antzinako Eliz Gurasoek idatzi zutena: irakurri Idazteuna, bizitzarako argia eta atea delako. Atseginez irakur dezazuela, hitz santua gogoko gerta dakizuela. Bihotza sendatzen duen iturria sortzen da bertatik. Barruko gogortasunak desegiten dituen hitza da. Idazteunak zeruko sekretuak agertzen dizkio beti fededunari. Idazteuneko hitz santuak belarrean ihintza bezala isurtzen dira. Irakurritz eta hausnartuz, bakoitzak ikusten du nola goazen bizitza zoriontsura eta zeintzuk diren santuen bidea eta onerako bidea. Irakurritz jakinduria iristen dugu».<sup>47</sup>

(47) M. MASINI, a.i., 436. or. aipatua.

Iruñea eta Tuterak, Bilbo, Donostia eta Gasteiz  
2009ko otsailaren 25a  
*Hausterre-eguna*

- ✠ **Frantzisko**, Iruñako Artzapezpikua eta Tuterako Gotzaina
- ✠ **Rikardo**, Bilboko Gotzaina
- ✠ **Joan Maria**, Donostiako Gotzaina
- ✠ **Migel**, Gasteizko Gotzaina
- ✠ **Mario**, Bilboko Gotzain Laguntzailea

©

**idatz**

Elizbarrutiko Argitaldaria. Editorial Diocesana  
Urdaneta, 10  
20006 DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN  
Tel. 943 465 326.- Fax 943 470 363  
E-mail: idatz@idatz.euskalnet.net  
www.idatz.com

I.S.B.N.: 978-84-96903-29-6  
Legezko Gordailua: SS-240-2009  
Imprime: FASPRINT -IGARA -Donostia